



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**HIZKUNTZAREN GARRANTZIA HAUR**  
**HEZKUNTZAN: praktikan jartzeko**  
**proposamena**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Sáez Navarro, Nerea.

ZUZENDARIA: Reguero Ugarte, Urtzi.

**2022-2023**

## **LABURPENA**

Zehaztapenetara jotzen badugu, Gradu Amaierako Lan hau komunikazioan, hizkuntzan eta ahozketasunean oinarrituko da. Komunikazioaren bitartez lortu nahi diren helburuez jabetzean, haurtzaroan honakoak nola garatu ikustean eta hizkuntzarekiko hurbiltasuna bilatzean datza. Hau, betiere, ematen den egoera kontuan hartuta eta helburu horiek lortzeko erabiltzen diren baliabideak behar bezala egokituz. Hori oinarri bezala hartuta, haurren hizkuntzarekiko lehenengo kontaktuari emango zaio garrantzia. Gainera, ikasleekin halako gaiak lantzeko eretan sakonduko da jarduera ezberdinen proposamenak plazaratuz. Jarduera horiek haurren adinaren arabera egokitu beharko dira, haren arabera moldaketak eginez.

Lehenengo atalean, marko teorikoan hain zuzen, hizkuntzaren garrantziaren inguruan hitz egingo da. Honez gain, hizkuntzaren bidezko komunikazioaz jardungo da, eta honek gizakion bizitzan duen garrantziaz. Teoria eman ondoren, aipatutakoa lantzeko jarduera batzuk agertuko dira, aurretik esan bezala. Aurtengo praktikaldian zehar ikusitakoan eta egindakoan oinarrituko dira jarduera horiek, haien eraginkortasuna ziurtatuz. Hizkuntzak daukan garrantzia argi geratu behar da bai familietan baita eskoletan ere, eta horretarako gaiaren inguruan jakitea beharrezkoa da. Informazioa bilatzea komeni da, baita umeeekin burutu daitezkeen ekintzak ezagutzea ere. Hori da lan honen helburuetako bat, hots, ahozketasuna eta hizkuntzari buruzko jakintza zabaltzea. Guzti hau, noski, Haur Hezkuntzako etapan zentratua izango da.

## **RESUMEN**

Hablando minuciosamente, este trabajo de fin de grado se basará en la comunicación, el lenguaje y la oralidad. Consiste en tomar conciencia de los objetivos que se persiguen a través de la comunicación, ver cómo se desarrollan en la infancia y buscar la cercanía al lenguaje. La idea será adaptar adecuadamente los recursos que se emplean para alcanzar estos objetivos, siempre y cuando se tenga en cuenta la situación que se da. Sobre esta base, se profundizará en el primer contacto con la lengua de los niños y niñas y en su forma de trabajar, así como en las actividades para conseguir lo dicho. Estas actividades deberán adaptarse en función de la edad de los niños y niñas, habiendo cambios según la edad de los alumnos.

En la primera parte, en el marco teórico, se hablará de la importancia de la lengua. Además, se tratará sobre la comunicación a través del lenguaje y su importancia en la vida humana. Una vez puesta la teoría, aparecerán algunas actividades para trabajar lo mencionado, tal y como se ha comentado anteriormente. Dichas actividades se basarán en lo visto y realizado durante el periodo de prácticas de este año, asegurando su eficacia. La importancia de la lengua debe quedar clara tanto en las familias como en las escuelas, y para ello es necesario conocer el tema. Conviene buscar información y conocer las acciones que se pueden llevar a cabo con los niños y niñas. Por ello, uno de los objetivos de este trabajo es difundir la oralidad y el conocimiento de la lengua. Todo esto, por supuesto, estará centrado en la etapa de Educación Infantil.

## **ABSTRACT**

If we stick to the specifications, this end-of-grade work will be based on communication, language and orality. It consists in being aware of the goals to be achieved through communication, in seeing how to develop them in childhood, and in searching of the proximity to language. This is always in view of the situation in which we find ourselves, and how to adapt the resources used to achieve these objectives appropriately. On this basis, the first contact with the children's language and their way of working will be deepened, as well as in the activities to achieve what has been said. These activities must be adapted according to the age of the children, doing changes depending of that.

The first section, the theoretical framework, will speak about the importance of language. In addition, it will be about communication through language and its importance in human life. Once the theory has been given a number of activities will appear, as noted above, to put in practice all the information. These activities will be based on what has been observed and done during this year's practice period, ensuring their effectiveness. The importance of language must be clear both in families and in schools. For this, it is important to look for information and to know the exercises that can be done with children. Therefore, one of the objectives of this work is to disseminate orality and knowledge of the language. All of this, of course, will be focused on the Early Childhood Education stage.

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera.....</b>	<b>4</b>
<b>2. Justifikazioa.....</b>	<b>5</b>
<b>3. Marko teorikoa.....</b>	<b>6</b>
3.1 Hizkuntzaren jabekuntza.....	6
3.2 Hizkuntza motak.....	8
3.3 Komunikazioaren hasiera.....	12
3.4 Hizkuntzaren garrantzia HH-n.....	14
<b>4. Ahozkoa lantzeko jarduerak.....</b>	<b>16</b>
4.1 Testuingurua.....	16
4.2 Curriculumaren garrantzia.....	17
4.3 Irakaslearen rola.....	19
4.4 Ebaluazioa.....	22
4.5 Jarduerak (4. eranskina).....	24
<b>5. Ondorioak.....</b>	<b>31</b>
<b>6. Erreferentziak.....</b>	<b>34</b>
<b>7. Eranskinak.....</b>	<b>38</b>

## 1. Sarrera

Lau ikasturte ondoren Haur Hezkuntzako Gradu honi amaiera emateko ordua da. Horretarako, baina, Gradu Amaierako Lana egin beharra dago. Nire kasuan komunikazioari, hizkuntzari eta ahozkotasanari daukaten garrantzia ematea erabaki dut. Gai hauek oharkabean igarotzen dira askotan, baina egia dena edozein gizakiren bizitzan falta ezin diren arloak direla da. Beraz, komunikazioaren bitartez lortu nahi diren helburuez jabetzean, hauek nola garatu ikustean eta haurren hizkuntzarekiko hurbiltasuna bilatzean datza hemendik aurrera aurkituko dena. Guzti hau lortzeko, normala den bezala, egoera kontuan hartu beharko da egokiak eta erabilgarriak izango diren baliabideak aukeratzeko. Horretarako informazio teorikoa eskainiko da, baina horrez gain sei jarduera proposatuko dira, ikasgelan burutu ahal izango direnak. Jarduera hauek adinaren arabera egokitu ahal izateko pentsatuak dira, taldeari moldatuz.

Aurkituko den lehenengo gauza gai hau aukeratzearen zergatia izango da. Justifikazioaren atala da hau, non GRAL honen garrantzia eta gaiarekiko interesa azpimarratuko diren. Jarraian, marko teorikoan hain zuzen, hizkuntzaren eta komunikazioaren garrantziaren inguruan hitz egingo da lau azpigaien barruan. Gai hauek gizakion bizitzan daukaten garrantziaz ohartzea ezinbestekoa da, eta horretarako eskolan zein etxean lanketa bat egin behar da. Horri buruz jakiteko informazioa bilatzea beharrezkoa iruditzen zait, baita hurrekin burutzeko ekintzak ezagutzea ere. Hori da lan honen helburua, zehazki, nahi duenak hizkuntzari, ahozkotasanari eta komunikazioari buruzko ezagutzak handitzen saiatzea. Haur Hezkuntzako etapan zentratutako lana dela esan beharra dago, horretarako ikasi dudalako urte hauetan zehar.

Teoria ikusi ondoren, landutakoa praktikan jartzeko jarduera batzuk eskainiko dira, aurretik esan bezala. Jarduera horiek Practicum III-an egindako ekintzak izango dira, beraz, baliogarriak direla esan dezaket. Aurtengo praktikaldia Gasteizko Urkide Ikastetxean burutu dut, zeina hiriaren erdialdean dagoen. Kooperatiba bezala lan egiten duen eskola honetan asko ikasi ahal izan dut, eta nire lanbidearekiko erabateko hurbiltasuna lortu dut. Giza balioetan oinarritzen den zentroa da, zintzotasuna, jarrera irekia eta gizarte-erantzukizuna goraiatuz. Era honetan komunitatean bizitzeko balioak irakasten ditu, nire ustez ezinbestekoak direnak. Gehiagorik gabe, espero dut informazioa zein jarduerak baliogarriak izatea honi buruz gehiago ezagutu nahi duen edonorentzat.

## 2. Justifikazioa

Hizkuntzaren eta ahozketasunaren garrantzia handia da gizakion egunerokotasunean. Horregatik, txikitatik lortu beharreko tresna bezala identifikatu daitezke. Hizkuntza eta ahozketasuna funtsezkoak dira haurren garapenean, haien komunikaziorako ezinbestekoak izanda. Hizkuntza arma zoragarria da, beste ezagutza batzuei milaka ate irekitzen dizkiena, besteekiko harremanetarako tresna dena eta behar bezala elkarreragiteko aukera ematen duena (Calderón, 2016). Dena den, hizkuntza barneratzea ez da soilik eskolen egin beharrekoa, etxean ere lanketa egon behar da. Are gehiago, haurrek jasoko duten hizkuntzarekiko lehenengo kontaktua familiarekin izango da, bai helduarengandik entzunez baita norbera zarataka hasiz. Helduaren zein haurraren transmisio hori ezinbestekoa izango da hizkuntzarekiko hurbiltasuna lortzen joateko. Beraz, gai honekiko familien pisua argi geratu behar da.

Hizkuntza eta komunikazioa garatzen joan ahala, haurrak bere interesak adierazi ahal izango ditu. Hots arruntekin bere nahiak edota beharrak jakinaraziko ditu, soinu simple horiek ere hizkuntzaren parte direlako. Honakoa 237/2015 Dekretuan agertzen diren oinarrizko kompetentzien barruan dago, hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako kompetentzia, hain zuzen. Hots hauek hizkuntzaren zati bat izatea ez da betidanik onartu, lehen soilik hitzak hartzen baitziren hizkuntzatzat. Ideia hau, ordea, aldatuz joan da denboraren poderioz. Hizkuntza komunikazio-sistema egituratu bat da, informazioa transmititzeko helburua duena. Honek zeinu ezberdinak hartzen ditu bere gain, dela soinuak dela beste era batzuetakoak. Soinuzkoek espazio handiagoa hartzen dute komunikazioari buruz jardutean, baina badira keinuzkoak (gorputz-hizkuntza), idatzizkoak (sinboloak) eta ikonikoak (irudiak) ere (Diferenciador, 2021).

Esandakoa esanda, gai hauek sakonki aztertzea interesgarria dela deritzot, arlo bakoitzean arreta jarritz. Eskolan zein familian kontuan hartzeko informazioa eskuratzea beharrezkoa iruditzen zait haurren garapenari dagokionean. Informazio teorikoa errealitatean nola aplikatu zaila dela onar daiteke, baina baliabideak izanda ez litzateke gehiegizko arazorik egon behar. Hizkuntzaren kasuan, esaterako, hainbat jarduera hezitzaile burutu daitezke nahi diren alderdiak lantzeko. Beraz, teoria zein jarduerak konbinatuz emaitza onak lor daitezkeela ziurta dezaket. Hori dela eta, lan hau erabilgarria izan dadin espero dut, bai informazioa eskuratzeko orduan baita jarduerak prestatzeko momentuan ere.

### **3. Marko teorikoa**

Atal honetan hizkuntzaren eta komunikazioaren inguruko informazioa biltzen da, azpigai ezberdinetan banatuta. Hasteko hizkuntzaren jabeakuntzaz arituko da, non autore eta korrante ezberdinak aipatuko diren kronologikoki antolatuta. Ondoren hizkuntza motak agertuko dira, batzuk beste batzuk baino ezagunagoak baina guztiak garrantzitsuak, eta horrekin batera hizkuntzaren ezaugarriak. Jarraian komunikazioaren hasierari buruzko informazioa dago, haurrek burutzen duten prozesua adieraziz. Izaki bizidunen berezko zentzu bezala definitzen da komunikazioa, eta gizakiok hitzeko hizkuntzarekin harremantzen dugun arren, ez du zertan hala izan. Atal honekin bukatzeko hizkuntzak Haur Hezkuntzako garaian duen garrantziarekin sartuko da, non haurren garapeneko etapa ezberdinak ezagutuko diren.

#### **3.1 Hizkuntzaren jabeakuntza**

XX. mendean hainbat korrante eta autore aritu dira hizkuntzaren jabeakuntzaren inguruan, ikuspuntu ezberdinak azaleratuz. Alde batetik, Piagetek konstruktibismoa ekarri zuen. 20ko hamarkadan agertzen da mugimendua, garapen kognitiboa prozesu dinamikoa dela esanez. Subjektu bakoitzak dituen mekanismo interaktiboak biologikoak direla defendatzen du, hau da, jaiotzen denetik norberarekin datozenak. Ikaskuntza barne-prozesu gisa definitzen du, ingurunearekiko interakzioaren bidez eraikitzen dena. Hori dela eta, haurra era egokian garatu ahal izateko espazioak eta baliabideak eskaini behar zaizkio. Hizkuntzaren kasuan, adibidez, irakasleak hitz egitera eta komunikatzera bultzatu behar ditu ikasleak hura barneratzeko. Bestalde, konstruktibismoak defendatzen duen ideia da haurra ez dela heldu baten miniatura, eta beraz haur bezala tratatu behar dela (Werstch eta Vigotsky, 1988). Ezin zaio ume bati heldu bati hitz egiten zaion bezala hitz egin, ez daukalako ahalmen bera ez komunikazio gaitasunean ez beste arlo batzuetan ere.

XX.mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan Vigotskiri eman behar zaio garrantzia, zeinak Piagetekin harremana daukan. Gizakiak berezko jakintza batzuk ekartzen dituela esaten du, hauek biologiaren eta ingurunearen baldintzetara egokituz. Honekin esan nahi du gizabanakoaren prozesu mentalek, hots, pentsamendu kritikoak, arrazoitzeak..., prozesu sozialetan dutela jatorria. Dioenez, inguratzen duten espazioak eragin estua dauka norberaren jakintzan eta gaitasunetan, baina ez horrek bakarrik, egoera ekonomikoak eta kulturalak ere zerikusia daukate. Berrito ere hizkuntzara ekarriz, Madrillgo ume batek erraz barneratuko du gaztelania, izan ere, bere ingurunean entzuten den hizkuntza da. Kongotik

Madrilera etorritako haur bat, ordea, galduago sentituko da. Bere barne hizkuntza erabiliko du gauzak ulertzeko, eta gutxinaka bertakoa ikasten joango da.

Geroago, 50eko hamarkadan, Skinnerren ideiak hasi ziren konduktismoaren inguruan. Honek baldintzapen operanteari buruz jardun zuen, errefortzuek jarrera positiboetan duten eraginean, hain zuzen (Reguero, 2020). Praktikan jartzerako orduan, ikasle bati denbora osoan errieta botatzen bazaio eta gaizki egin duela errepikatzen bazaio, ez da ezer lortuko. Errefortzu positiboak emanez gero, ordea, haren erantzuna askoz ere baliogarriagoa izango da. Haurrek imitazioz ikasten dutela defendatzen zuen Skinnerrek, helduen jarrerak ikusi eta errepikatuz. Beraz, hau kontuan harturik, irakaslearen rola asko zaindu beharko litzateke. Ikasleek hezitzailearen jarrera imitatuz gero, hezitzaileak berak haurrekiko errespetua eta zintzotasuna erakutsi beharko luke.

Portaera estimuluaren aurrean ematen den erantzun bezala definitzen du, pertsona bera makina bat bezala irudikatuz. Hau da, pertsona batek estimulu bat jasotzen duen momentuan, horren aurrean erreakzionatzeko era da portaera. Erreflexu bat bezala har daiteke, estimuluari erantzuteko modua. Horrela izanda, kontzientzia eta sentimenduak alde batera uzten ditu, existituko ez balira bezala. Hau azalekoa dela esan daiteke, ez dituelako nortasuna edota adimena kontuan hartzen (Skinner eta Ardilla, 1975), bakarrik jokatzeko era. Gizakiari bere gizatasuna kenduko balio bezala har daiteke, pertsona definitzen duen hori ezabatzen duelako (nortasuna, adimena...).

Bestalde, 50eko hamarkadaren bukaeran eta 60koaren hasieran, Chomsky agertzen da. Honek kognitibismoa dakar berarekin, Skinnerren konduktismoari erantzuna ematen diona. Hizkuntzalaritza arloan iraultza bati hasiera ematen zaio ideia kontrajarriak agertu zirelako, eta bi ideologiek talka egin zuten. Reguerok (2020) dioen bezala, Chomskyk Gramatika Sortzailearen alde egiten du, non hizkuntzaren izaera sortzailea aldarrikatzen den. Skinnerren ideiekin alderatuz, honek ez du uste haurrak imitazioz ikasten duenik. Jaiotzatik jakintza batzuk ekartzen ditu, eta, hizkuntzaren adibide, hiztuna gai da inoiz entzun ez dituen esaldiak sortzeko eta ulertzeko (Chomsky eta Foucault, 2015). Kasu hauetan, ordea, sintaxi aldetik zuzenak diren baina zentzurik ez duten esaldiak agertzen dira (semantika eta pragmatikari erreparatu gabe). Kognitibismoak ez du hizkuntza komunikazio tresna moduan hartzen, eta ez du kontuan hartzen haurraren komunikazioa ez dela ahozko hizkuntzan oinarritzen.



### 3.2 Hizkuntza motak

Hizkuntza gizakiaren haurtzaroan garrantzi handia duen alderdia da. Honakoa komunikazio-sistema konplexuak jasotzeko, haiek barneratzeko eta gainera praktikan jartzeko gaitasuna da, zeina berariazkoa eta unibertsala den (Contributors to Wikimedia projects, 2022). Unibertsala da, izan ere, gizaki guztietan berdin aurkezten da. Hizkuntza gaitasuna ez da ikasi behar den zerbait, jaiotzatik dator gizaki ororekin. Gainera, hizkuntzaren gaitasuna bera ezin da galdu, baizik eta hizkuntza ezberdinak ikasi edo ahaztu. Hau estuki lotuta dago komunikazioarekin, izan ere, komunikazio-gaitasuna banakoak daukan hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da (Gutierrez eta Ezeizabarrena, 2022). Horrez gain, komunikazio-egoera desberdinetan hizkuntza era egokian erabiltzeko trebetasuna bezala ere definitu daiteke. Komunikazio-kompetentziak berarekin dakar ez bakarrik hizkuntza-kodea ezagutzea, baizik eta transmititu nahi den mezua era egokian adieraztea, zer, nori eta nola izango den kontuan hartuz. Ez da gauza bera lagunen artean hitz egitea edota enpresako zuzendariari zuzentzea, eta hori desberdintzen jakiteko adierazteko modua ere oso esanguratsua da.

Zehazki, hizkuntza gizakion ezaugarri bat da. Gizaki guztiok erabiltzen dugu hizkuntza bat edo beste, baina gutxitan zentratzea komeni da, harekiko jakintzak behar bezala barneratu ahal izateko (Gutierrez eta Ezeizabarrena, 2022). Animaliak ere bitzako esperientziak adierazteko gai dira, baita beste batzuei komunikatzeko gai ere. Horretarako, ordea, ez da zertan ahozko hizkuntza erabili. Soinu, keinu edo ikurren esku har daiteke komunikatzeko orduan. Gizakiaren kasuan hizkuntza konplexu bat sortu dela esan beharra dago, hizkuntzaren gaitasun horren barruan kokatzen dena. Hizkuntza konplexu horrek sekuentzia bat jarraitzen du, soinu eta ikur grafiko zehatz batzuez osatua eta haien bidez adierazia. Animaliak, ordea, beste era batean komunikatzen dira bai haien artean baita gurekiko ere. Soinu, gorputz-keinua eta usainaren bidez lortzen dute komunikazio hori, eta era sinpleagoa dirudien arren oso konplexua da baita ere.

Hizkuntza-moten barruan hiru ezberdindu daitezke argi eta garbi. Hiruretan behar dira komunikaziorako beharrezkoak diren oinarriko atalak, hots, igorlea, hartzailea eta mezua, eta horregatik dira hizkuntzak. Lehenengoa ahozkoa da, zeinak soinuak intonatzeko erraztasuna daukan. Hori abantaila handia da, hartzaileak nabaritu ahalko duelako igorleak ze zentzutan plazaratzen duen mezua. Izenak dioen bezala ahoz transmititzen da, eta entzumenaren bidez jaso. Bigarrena idatzizkoa da, ahozkoa baino beranduago sortu zena. Hau ezinbestekoa izan da historiaren hainbat pasartze ezagutzeko momentuan, izan ere, belaunaldiz belaunaldi jakintzak edo gertakizunak transmititzeko balio izan du (Yule, 2007).

Idatzizkoak daukan abantaila denborarekin desagertzen ez dela da, betiere ondo zaintzen bada, noski. Hirugarrena mimikoa da, keinu bidezkoa. Honen barruan aurpegia zein gorputzeko edozein atal sar daiteke mezua transmititu ahal izateko.

Hiru horiek aspaldi sortutakoak dira, nahiz eta bata bestea baino zerbait zaharragoa izan, historian zehar erabiliak izan direlako. Gaur egun, ordea, beste hizkuntza batzuk ere garatu direla esan daiteke. Haien artean grafikoa dago, argazki, marrazki edo beste irudi batzuen bidez komunikatzeko balio duena (Costa, 2011). Egia da antzinan ere marrazkiak egiten zituztela, baina beharbada ez ziren komunikatzeko helburuaz. Ikus-entzunezkoa ere agertu da, irudia eta soinua elkarren artean konbinatuz ematen dena. Ziur denbora aurrera joan ahala gero eta hizkuntza gehiago agertuz joango direla, komunikazio gaitasuna sustatuz eta hura izaki ezberdinen arteko komunikaziorako baliatuz.

Gizakion hizkuntzaren ezaugarriei buruz hitz egitean, ordea, desberdintasunak agertzen dira hizkuntzalarien artean. Ferdinand de Saussure suitzar hizkuntzalariak, estrukturalismoaren sortzaileak, sailkapen hau egin zuen (Contributors to Wikimedia projects, 2022):

- Arbitrariotasuna: adierazlearen eta adierazitakoaren arteko harreman konbentzionala. Kontzeptu bera irudi ezberdinekin erlazionatu ahal izatea hizkuntzaren arabera. Esaterako, oso (gaztelaniaz, hartza) eta oso (euskaraz, aditzondoa) berdin ahoskatzen dira, baina ez diote elementu berari erreferentzia egiten. Hau da, adierazleak (hitzak berak) bat datozen arren, adieraziak (esanahiak) ezberdinak dira.
- Linealtasuna: entzuterako orduan hotsak bata bestearen atzetik ematen dira, denak jarraian.
- Ez-aldakortasuna: adierazle eta adieraziaren arteko lotura hizkuntza komunitate batek ezartzen du, eta lotura hori ezin da nola edo hala apurtu.
- Aldakortasuna: denboran eta espazioan zehar hizkuntza zeinuak aldatzea gerta daiteke, eta aldaketa horiek adierazleari edo adieraziari zuzenki eragiteko aukera dago. Elementu berari tokiaren arabera era desberdinean deitzea izan daiteke honen adibide. Euskal Herrian, esaterako, probintziaren arabera ez zaie berdin esaten: madari, udare, txermen.

Hockett hizkuntzalari estatubatuarrak, bere aldetik, beste zerrenda bat egin zuen. Honek Ameriketako estrukturalismoan eragina izan zuten ideia asko garatu zituen, eta

hizkuntzaren ezaugarrien inguruan honakoa defendatzen zuen (Contributors to Wikimedia projects, 2022):

- Aho-belarri bitarteko kanala: mezua ahoz igorri eta entzumen bidez jasotzen da. Ahoz komunikatzerako orduan gorputzeko gainontzeko atalak libre egon daitezke, edo beste gauza bat egiten, hitz egiteko ez direlako behar. Aho-belarri kanala komunikaziorako ohikoena izan arren, ikusmen kanalak ere badu tokia (zeinu-hizkuntza). Eragile ezberdinek komunikazioa zaildu dezakete, adibidez, distantziak, zaratak, argitasunak...
- Uhin bidezko transmisioa: Soinua norabide guztietan hedatzen da uhinen bidez, hartzaileak seinalearen jatorria antzeman ez. Airean mezu bat baino gehiago egon daitezke, jaso nahi den mezuaren ulermena zailduz.
- Iheskortasuna: seinalea berehala galtzen da, ez da denboran eta espazioan luzatzen ahozkotasanari dagokionean. Idazketaren bidez mantendu egiten da, baina idatzizkoa ez da hizkuntzaren berezko ezaugarri bat.
- Diskretutasuna: hizkuntzaren unitateak banatu egin daitezke, ez dago haien arteko trantsiziorik. Gizakiok unitatea horiek desberdintzeko gaitasuna dugu, kate bat entzutean badakigulako zenbat hots dauden segida horretan. Adibidez: Amon-a-dend-a-tik-atera-d-a.
- Semantikotasuna: seinalearen bidez esanahi jakin bat transmititu nahi da. Esaldiek irudi mentalak piztu behar dituzte, hartzailearen ulermena eman behar da.
- Arbitrariotasuna: objektuak berak eta hura izendatzen duen soinuak ez dute lotura naturalik, horrela erabaki zen eta horrela jarraitzen du. Onomatopeien kasua apartekoa da.
- Dualitatea: esanahia duen unitatea zati txikiagoetan bana dezakegu. Sistemari bi maila bereizten dira: morfemak (esanahia duten elementuak) eta fonemak (esanahiak bereizteko elementuak. Konbinatuz gero hitz kopuru mugagabea sor daiteke).
- Emankortasuna: unitate gutxirekin hiztunak mugarik gabeko esaldi edo mezu kopurua sor dezake. Esaldiak era askotarikoak izan daitezke, sinpleagoak edo konplexuagoak, baina helburu bera mantenduz. Hartzaileak ulertzeko modukoak izatearekin nahikoa da.
- Desplazamendua: momentuan bertan ez dauden gauzei buruz jardun daiteke, baita existitzen ez diren gauzei buruz.
- Espezializazioa: giza gorputzeko atalak hizkuntzarako prestatuta daude, hau da, hainbat organo komunikatzeko espezializatu dira (mingaina, birrikak, hortzak...)

- Rol trukagarritasuna: igorlea hartzaile izan daiteke momentu ezberdinetan, eta alderantziz.
- Berrelikatzea: hiztunak mezuaren kontzientzia dauka, esaten ari dena entzun dezake eta hark hartzailearengan duen eragina ikus dezake. Hori dela eta, hartzailearen arabera mezua edota hura transmititzeko era aldatzeko aukera dauka.
- Kultur transmisioa: hizkuntza kulturaren araberakoa izan da, eta belaunaldi belaunaldi transmititzen joan da. Hori dela eta, testuinguruak eragina dauka hizkuntza jasotzerako momentuan. Tokiko kultura eta ohiturak ere hizkuntzaren bidez jasotzen dira, balioak transmitituz.
- Prebarikazioa: hiztunak gezurra esan dezake, edota egia aldatu. Nahi diren edukiak nahas daitezke hartzaileak mezua den bezalakoa uler ez dezan.
- Funtzio metalinguistikoa: hiztunak hizkuntzari buruz hitz egin dezake, haren funtzioez, helburuez...

Lehen esan bezala, hizkuntzaren gaitasuna jaiotzatik gurekin datorren zerbait da. Ordea, hizkuntzaren jabekuntza landu beharreko arloa da. Horren inguruan aritzean ikuspuntu linguistikoa, psikolinguistikoa eta soziolinguistikoa bana daitezke. Lehenengoaren kasuan, hurrek norainoko ulermena daukaten aztertzen da. Zer esan nahi dute soinu horiekin? Zer asmorekin egiten dituzte? Adierazi nahi dutena testuinguruarekin erabat lotuta egiten da, eta pragmatikaren izena ematen zaio. Mezu baten interpretazioan testuinguruak nola eragiten duen argia da. Honakoa esanda, argi geratzen da morfologiaz eta sintaxiaz gain pragmatikari ere arreta jarri behar zaiola komunikatzeko orduan, dela hitzez zein beste era batean adieraziz esan beharrekoa (Reguero, 2022).

Ikuspuntu psikolinguistikoari dagokionez, haurren inguruko hizkuntzarekiko jabekuntzaz ohartu behar da. Haiek aktibo aritzen dira momentu oro, dela helduekin interakzioan dela haien mezuak sortzen. Vigotskik defendatzen duen bezala, haurtzaroan hizkuntzaren garapena pentsamenduaren motorra da. Hirugarrenik, ikuspuntu soziolinguistikoan, kontuan hartu beharreko hainbat alderdi ageri dira. Haurraren testuinguru ekonomiko, sozial eta kulturala erabat lotuta dago bere hizkuntza mailarekin. Esaterako, ikasketarik ez duen familia batean hezitako haurraren kasuan askoz zailagoa izango da hizkuntza era egokian garatzea. Honakoa, ordea, ez da bakarrik familian gertatzen denarekin garatzen, eskolak ere badu pisua. Dialekto bera izanez gero laguntza jaso ahal izango du, baina beste dialekto bat erabiliz gero askoz ere zailagoa izango da prozesua.

### 3.3 Komunikazioaren hasiera

Komunikazioa izaki bizidunek daukaten berezko zentzu bat da. Hau, ordea, ez da zertan hizkuntzan oinarritu behar gizakiaren alderdi handi bat hartzen duen arren. Komunikazioa mantentzeko era anitz daude bai gizakion baita animalien artean, esaterako. Adibide da txakur bat zaunka hastea, horren esanahia ezagutzea ezinbestekoa izango baita haren eskaerari aurre egin ahal izateko. Beraz, haurren kasuan ere berdin funtzionatzen duela esan daiteke. Nahiz eta txikitan hitz egiten ez jakin, soinu eta keinuen bidez haien mezua adierazteko gai dira. Hori argi dagoen gauza da, baina, orduan, zergatik ematen diogu hainbesteko garrantzia umeei lehenengo hitzak esateari? Prozesu baten menpe sartzen dira haurrak jaiotzen diren momentutik, eta bizi beharreko ibilbide horretan komunikazioaren eta hizkuntzaren garapena hobetuz doa.

Oso garrantzitsua da haurren erritmoa errespetatzea eta beraz haien hizkuntzaren agerpenarekiko presarik ez adieraztea. Komunikatzeko gai dira, bai haiek helduei zerbait adieraziz baita helduengandik mezuak jasoz. Kontuan hartu beharreko gauza bat umeak sabelean daudenetik kanpoko informazioa barneratzeko gai direla da. Hori dela eta, hurbileko ahotsak eta zaratek eragin handia izaten dute besteen aldean. Jaiotzen direnean gai dira haien amaren ahotsa besteen gainetik jasotzen eta identifikatzen, eta horrela beste hainbat soinu esanguratsurekin. Lehenengo momentuetan, beraz, ezinbestekoa da identifikatzeko gai diren soinuak hurbil mantentzea, dela melodia zehatz bat dela txori baten kantua. Horrez gain, beste gizakiengandik datorrena nahiago izaten dute apariluen gainetik. Adibidez, pertsona baten ahotsa musika baino nahiago dute, edota gertutik ikusitako aurpegiak marrazkiak baino (Karmiloff eta Karmiloff-Smith, 2005).

Haurrak, jaiotzen direnean, soinu automatiko batzuk egiten hasten dira. Hots horiek nahi gabe egiten dituzte, ez dira mezu bat adierazteko asmoz. Asteak eta hilabeteak igaro ahala, ordea, soinuak garatuz joaten dira. Hasieran ezin dituzte 5 edo 6 hilabete inguru dituztenean bezalako hotsak egin, laringeak eta ahots-kordak ez daudelako oraindik hain garatuak. Adin horretatik aurrera, baina, konturatzen dira nahita egindako soinuek erantzun bat izan dezaketela. Horregatik, soinu altuagoak, baxuagoak, luzeagoak... egiten hasten dira, bakoitzaren esanahia bilatuz. Ume bakoitzak hots ezberdin batekin lotu dezake eskaera bera, hau da, batentzat gauza bat esan nahi duena beste batentzat era ezberdinean izango da. Helduek paper garrantzitsua dute puntu horretan, izan ere, gure hitz egiteko erak zerbait esan nahi izango die txikiei. Etenaldiek, erabilitako melodiak, tonu aldaketek eta halakoek haurren arreta erakartzen dute, hizkuntzarekiko interesa piztuz.

Denboraren poderioz eta esperimentazioaren bidez hilabeteak besterik ez dituzten haurrak erantzun ezberdinak jasotzen joango dira, komunikaziora hurbilduz. Haien egindako soinu baten bidez helduaren erantzun bat jaso dutela ikusiko dute, horren bidez akzio-erreakzioa ikusiz. Gainera txandak ere ezagutzen joango dira, haien mezuari erantzun bat agertuz eta ondoren berriro haien txanda izanez. Askotan, hitzak erabili ez arren, elkarrizketa bat mantentzeko gai izaten dira haien hots eta keinuei esker. Horregatik ematen zaio garrantzia haurren afektibotasunari eta heldu zehatz batzuekiko atxikimenduari. Hau diot heldu horiek haurraren soinuak ezberdintzen eta identifikatzen jakingo dutelako, eta besteek ez bezala, haurrak zer adierazi nahi duen jakingo dutelako.

Aurretik esan den bezala, haurrek hilabeteak betetzen dituzten ahala hizkuntzarekiko gaitasuna nabari aldatzen doa. Hasieran egiten zituzten hots horiek gero eta konplexuagoak dira, helduek erabiltzen duten hizkuntzara hurbilduz. Inguratzen dituzten pertsonen hizkuntza zehatz bat edo batzuk erabiliko dituzte haien egunerokotasunean, haurrek horiek jasoz. Puntu honetan ezertarako balio ez dizkieten soinuak baztertu eta berri hauek erabiltzen hasten dira, badakitelako helduen erantzuna azkarragoa izango dela. Silabak esaten hasiko dira, kate moduko batzuk sortuz eta silabak behin eta berriro errepikatuz. Aldaketa hau 10 hilabeteren bueltan hasten da. Kate hori hotsen kontrolaren seinale da, eta haurraren mezua nahita ateratzen ari dela esan nahi du. Egoera hauetan oso garrantzitsua da helduaren erantzuna, izan ere, esan nahi duena ezagutu ez arren, haurra ulertua sentituko da, kontuan hartua izango balitz bezala (Ahozko hizkuntzaren garapena, 2020).

Silaba eta kate hauek ez dira beti berdina agertuko, horregatik garrantzitsua da adi egotea. Batzuetan argi eta garbi entzungo dira, baina haur guztiak ez dira berdina eta, beraz, komunikatzeko era ere ez. Ume batzuek haien bakardadean aterako dituzte hots hauek, beste batzuek behin eta berriro esaten dituzten bitartean. Beste kasu batzuetan baxu esango dituzte, eta agertzen ez direla uste arren, han egoten dira. Ezinbestekoa da honi arreta handiz begiratzea, urte batera iristen direnean kateak sortu ez badituzte zerbait esan nahi duela izan daitekeelako, beharbada arazo bat. Beraz, garrantzia eman behar zaion alderdia da honakoa, baina argi eduki behar da haur guztiak ez dutela berdina adierazten. Haien errespetatzea esan behar ez den gauza bat da, eta kezkatu arren haien errealitatea eta adierazteko modua ondo aztertu eta errespetatu behar da.

### 3.4 Hizkuntzaren garrantzia HH-n

Hitz egiteko gaitasuna gizakia beste espezieekiko desberdintzen duen ezaugarri nabarienteko bat da, baina hizkuntza ez da soilik hitz egitea. Komunikazioari estuki lotuta doan gaia da honakoa, eta are gehiago berdinen zein espezie ezberdinen arteko harremanarekin zerikusia duenean. Reguerok bere apunteetan dioen bezala, ideiak transmititzeko erreminta bezala har daiteke komunikazioa, hura lortzeko keinuak edota hitzak bezalako baliabideak erabiliz (Reguero, 2020). Egia da hitzen erabileraren bidez askoz errazagoa dela komunikazioa ahalbidetzea, baina beti ezin da haien esku hartu. Arrazoi ezberdinak daude honakoa ez emateko. Adibidez, pertsona mutu batek ezingo du hitzeko komunikazioa aurrera eraman. Beste adibide bat animaliekiko komunikazioa da, non gizakiak hitzak erabili ditzakeen baina animaliak ez.

Esan bezala, hitzek erraztasunak eskaintzen dituzte berdinen arteko komunikazioan. Transmittitu nahi den mezua zehatzago azaldu ahal izatea dakar honek, gauza bera esateko modu ugari izanda gainera. Horrez gain, bide errazena da bai igorlearentzat baita hartzailearentzat ere. Azkar ateratzen da zeozer hitzen bidez eskatzea, baina kontua asko zailtzen da hitzik erabili ezean. Dena den, aurretik aipatu bezala, hizkuntzak, hitzeko komunikazioaz gain, beste hainbat funtzio ditu. Haien artean oroitzapenak edukitzea, ideia propioak eraikitzea, nahiak agertzea... sartzen dira. Hizkuntza, beraz, guzti horiek barneratzeaz arduratzen da, baita besteekin komunikazioa ahalbidetzen duenez ere. Era zuzenean harremanetan jartzea dakar hizkuntzak harekin, komunikatzeko prozesua asko erraztuz. Hori dela eta, haurrak txikiak direnetik hizkuntzarekin lan egitea ezinbestekoa da. Argi dago gaur egungo egoerak familien errealitate ezberdinak dakartzala, haien seme-alabak era batera edo bestera mantenduz. Horren ondorioz haurren artean ahozko hizkuntzarekiko hurbiltasun handiagoa edo txikiagoa egongo da, garapenean eragin handikoa izango dena.

Komunikatzeko era argiago baten aurrean aurkituko dira umeak hazten doazen heinean. Haien komunikatzeko saiakera batzuetan abstraktutik hitzera igaroko dira, eta hizkuntza menperatzeari ekingo diote gutxinaka. Hizkuntzaren garapen hori bi etapatan ematen da. Lehendabizikoa aurre-linguistikoa da (0-12 hilabete), eta linguistikoa edo ahozkoa bigarrena (18 hilabete - 6 urte). Hasieran, etapa aurre-linguistikoa, haurra keinu eta mugimenduen bidez komunikatzen da bai arreta bereganatzeko bai erantzun bat lortzeko asmoz. Hitzak esaten hasi aurretik ere hizkuntza ulertzeko gai da haurra, beregana zuzendutakoa izanez gero, noski. Hitz egiteko era, tonoa, erritmoa, soinuak... esan nahi dizkieten gauzekin lotzen dituzte, zehatz mehatz esan nahi diotena ezagutzen ez badute

ere. Horrekin jarraituz, behin eta berriro entzuten dituen hotsak errepikatzeko nahia erakusten du. Gogo horretatik abiatzen da haurren silabak errepikatzeko ohitura, era batera edo bestera bada ere (Navarro, 2003).

Bigarren etapari dagokionez, linguistikoari hain zuzen, umea nahiko ulergarria den hizkuntza menperatzen joango da gutxinaka. Orokorrean bigarren urtearen amaieran hasten da fase hau, kasuak kasu. Haur guztiek erritmo berdina jarraitzen ez dutela kontuan hartuta, normalean fonemak ezberdintzeko gai izaten dira une hoentan. Gainera, entzundako hitzak inguruko gauzekin lotzen dituzte, haiek ikusten eta sentitzen dutenarekin. Askoz errazagoa izaten da era grafikoan adieraztea esan nahi dena, mezuarekin lotu daitekeen objektu edo irudi bat irudikatzeko gai izanez gero izugarritzko laguntza baita. Fase honetan esan nahi dutena ulertzen bazaie ere, hitz zehatz bat ahoskatzeko zailtasunak izanez gero beste kontzeptu bat asmatzera jotzen dute. Urteak bete ahala, noski, gero eta argiago hitz egiten joaten dira, esaldi osoak egiteko gai izatera helduz. Jasotzen duten informazioari dagokionez, gero eta agindu zehatzagoak eta konplexuagoak ulertzeko gai izaten dira (Ahozko hizkuntzaren garapena, 2020).

Bestalde gaitasun soziolinguistikoa agertzen da, non inguruak zerikusi estua duen. Honakoan kulturak, giroak, ohiturek eta halako aldagaiak eragina dute, eta horien arabera izango da haurrak garatzen duen hitz egiteko era. 5 azpigaitasun desberdinu daitezke honen barruan; gizarte harremanen adierazle linguistikoak, adeitasun arauak, herri-jakintzaren adierazpenak, erregistro desberdintasuna, eta dialektoa eta azentua. Gizarte harremanen adierazle linguistikoak eta adeitasun arauak komunitatearekiko erlazioan zentratzen dira. Gainontzekoekiko errespetua eta jokatzeko era aztertzen dituzte, hala nola txandak errespetatzea edota momentu bakoitzean hitz egiteko era erabakitzea. Herri-jakintzaren adierazpenen kasuan atsotitzak eta esapideak bezalako baliabideen erabilera sartzen da, egoera ezberdinen aurrean erabiltzeko moduan. Erregistro desberdintasunak, bere aldetik, sei mota sailkatzen ditu; ofiziala, formala, neutroa, informala, lagunartekoa, eta intimoa. Honakoa hartzailearen arabera da, segun eta nori zuzendua dagoen bata edo bestea erabiliz. Guzti hau argi adierazten du Pajaresek bere eskeman (2021).

Gaitasun soziolinguistikoaren barruan ezberdintzen den bosgarren eta azken azpigaitasuna dialektoa eta azentuarena da. Honek adierazle linguistikoak hartzen ditu bere gain, bost motatakoak izan daitezkeenak. Gizarte-mailakoak, eskualde-jatorrikoak, nazio-jatorrikoak, etnia-taldearenak eta talde profesionalarenak desberdintzen dira, kontu horiek garrantzizkoak izanik haurren egoeran. Bestalde formak agertzen dira dialektoa eta



azentuaren barruan. Hitz egiteko zein idazteko eran forma hauen arabera jardungo da, lexika, gramatika, eta fonologia bezalako aldagaiak agertuz. Normalean bizilekuaren araberakoa izaten da hau, toki guztietan ez delako hizkuntza era berean erabiltzen. Euskal Herrian, esaterako, Euskara erabiltzen da. Honakoa, baina, Euskalki ezberdinez osatzen da, segun eta zein hiritan edo herritan zauden ezberdintasunak aurkituz (Pajares, 2021).

#### **4. Ahozkoa lantzeko jarduerak**

Orain arte bildutako informazio guztia baliogarria dela esango nuke, baina ikasle talde baten aurrean jarri arte ezinezkoa da benetan erabilgarria den edo ez ikustea. Horregatik beharrezkoa iruditzen zait jarduera batzuk proposatzea, nahi izanez gero haien esku hartu ahal izateko. Jarraian datorren aukeretako bat aurtengo praktikaldian burututako jarduera bat da, beraz, lehen eskuz esan dezaket haurren interesekoa dela eta hasieran ezarritako helburuak betetzen direla. Argi dago jarduera hauek ez dutela talde guztietan funtzionatuko, baina horregatik da garrantzitsua norberak bere ikasle taldea ezagutzea eta haien interes eta nahietatik abiatzea. Hau esanda, bada, hona ahozkotasuna eta hizkuntza lantzeko jarduera batzuk eta hauek burutzeko alderdiak.

##### **4.1 Testuingurua**

Aurten egindako praktikaldia azkenengoa izan da, hots, Practicum III-a. Honakoa Gasteizko Urkide Ikastetxean burutu dut, hiriaren erdialdean dagoena. Ikastetxeari buruz ezinbestean aipatu beharreko alderdi bat kooperatibarena da. Webguneak dioen bezala Urkidek kooperatiba eta Onura Publikoko formula aukeratu zuen. Hauek giza balioetan oinarritzen diren enpresak dira, eta munduko egoera hobera joan dadin lankidetzaz goraipatzen dute. Defendatzen diren balio etiko nagusiak, berriro ere webguneari erreparatuz, hiru dira. Alde batetik zintzotasuna aipatzen da, ondoren jarrera irekia edukitzea, eta bukatzeko gizarte-erantzukizuna, gainerako pertsonetikiko errespetua eta komunitatearekiko interesa. Eskola bat dator kooperatibaren ideiekin, eta nire ustez ere hiru balio hauek funtzionamenduan jarriz gero, gauza askok hobera joko lukete.

Ikastetxeak 50 ikasgela inguru ditu, 2 urtetik kiroleko goi mailako heziketa ziklorainoko ikasleekin. Eskola hirueleduna denez, txikitatik hasten dira ikasleak euskara, gaztelania eta ingelesa lantzen. Adinaren arabera zailtasun eta lanketa maila moldatuz

doaz, eta normala den bezala, ordu gutxiagotik gehiagora igarotzen dira. Esan beharra dago eskola hau Euskadiko lehen ikastetxeetako bat izan zela eredu hau ezartzen, eta hura gertatu zen momentutik CLIL (Content and Language Integrated Learning) pedagogia aplikatu dela. Gainera, 2015ean esparru pedagogiko propio bat eratu zuen eskolak, Urkide Bidean izenekoa. Esparru honek ikaslearen eta eskolaren bertsio hoberenerantzako bidea bilatzen du kalitatezko hezkuntza ezarriz. Bestalde, familien laguntzarekin burututako proiektu bat ere abiatu da Urkiden, integratzailea, aktiboa, pluralista... dena.

Eskola-komunitatean murgilduz gero argi ikusten da errealitate ezberdinak daudela edozein eskolaren barruan. Urkideren kasuan, itunpeko ikastetxea izanda, ez dira hain alde handiak ikusten ikasleen artean, baina dena den egon badaude. Aniztasun mota asko ezberdinu ahal izan ditut egonaldian zehar, haurren garapenean kontuan hartzekoak direnak. Kultura aldetik begirada ezberdinak nabari dira, hainbat herrialdetako familiak daudelako bertan. Honekin lotuta dator GRAL honen gai nagusia, hizkuntza. Euskara ikasle askoren bigarren edo hirugarren hizkuntza izanik, lanketa handia dago harekin eroso sentitzea lortu ahal izateko. Dena den, hainbat jarduera praktikan jarritz aldaketa handia nabaritu nuen.

#### **4.2 Curriculumaren garrantzia**

Curriculumak hezkuntzaren oinarrietako bat dela esan beharra dago. Bertan zehazten dena aurrera eraman behar da, eta haurrek lortu beharreko gaitasunak garbi uzten ditu. Hori dela eta, jarduera hauetan ere hura hartuko da abiapuntutzat. Hasteko, oinarrizko zehar konpetentzietako batzuk lantzen dira. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia argia da, izan ere, lan honen helburu nagusia hizkuntzari eta komunikazioari buruzko jakintzak eskuratzea da. Honez gain elkarbizitzarako konpetentzia ere lantzen da, ia edozein ariketa burutzerako orduan gainontzeko ikaskideekin harremana izan behar delako. Gainera, norbera izaten ikasteko konpetentzia ere agertzen dela esan daiteke. Hau ekintza guztietan ematen da, izan ere, haurra edozein gauza egiten ari dela bere izaera garatzen ari da. Konpetentzia espezifikoen barruan hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia goraiatzen da. Jarduera batzuetan beste konpetentzia batzuk ere lantzen dira, bigarren mailan bada ere, hala nola arterako konpetentzia edota konpetentzia motorra.

Haur Hezkuntzako etapan hainbat helburu bete behar dira haurren ikaskuntza prozesuan gero eta garatuago egoteko. Helburu horiek oso kontuan hartu behar dira jarduerak proposatzerako orduan, barneratu beharreko guztia era egokian egin ahal izateko. Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena bezalako eremuetan, adibidez, hainbat helburu agertzen dira zehaztuta 237/2015 Dekretuan. Norberak sentitzen duena eta dauzkan emozioak ezagutzea eta haietaz jabetzea da aipatutako helburuetako bat, horiek komunikaziorako erabiliz. Sentimenduak adieraziz gero, gainontzekoekiko harremana hurbilagoa izango da, edo behintzat alderdi pertsonal bat azaleratuko da. Lanaren gaiarekin lotuta hainbat hizkuntzaren komunikazio-tresnak jasotzea eta horien bidez nahi dena transmititzea dago. Zenbait hizkuntza ezagututa aukera zabala ematen da komunikaziorako, eta hori lagungarria izan daiteke bai egoera pertsonalerako baita sozialerako ere.

Curriculumean zehaztutako beste helburuetako bat ahozko hizkuntza menperatzea da, hura erraztasunez erabiliz. Honek harekin dakar laugarren helburua, hots, gainontzekoen mezuak ulertzea eta interpretatzen jakitea. Pertsonen arteko hartu-emana ezinbestekoa da edonoren egunerokotasunean, eta horretarako ezinbestekoa da komunikatzeko gai izatea. Helburu guztiek jarrera daukate atzetik, hura gabe ezin izango delako batere lortu, baina hizkuntza ezberdinen aurrean irekia izateak inoiz baino jarrera positiboagoa behar du. Lurraldeko hizkuntzak ezagutzea eta erabiltzeko gai izatea ezinbestekoa iruditzen zait kasu hauetan, nahiz eta askotan egoera zailak egon. Dena den, atzerriko hizkuntzekin (baten batekin) moldatzea ere beharrezkoa dela deritzot, eta hori ikasgelatik landu beharreko gauza da. Honek kultura ezberdinak ezagutzea ekar dezake berarekin, testuak edo abestiak bezalako ariketen laguntzarekin frogatuz.

Ahozko hizkuntzaz gain idatzizkoa ere kontuan hartzen du 237/2015 Dekretuak. Hau adinaren araberrakoa izaten da, argi dagoen bezala, beraz, gero eta ikasle nagusiagoak, orduan eta helburu altuagoak. Hizkuntza idatziaren gizarte-arauak ezagutzen eta barneratzen joatea da zehazten hurrengo araua. Idazketa ere komunikatzeko tresna bat da, eta era egokian erabili ahal izateko ezinbestekoa da arauak aplikatzea. Komunikatzeko modu desberdinak daudenez, curriculumak (1. eranskina) matematikak eta artea ere aipatzen ditu helburuen barruan. Bi hauek segun zein testuingurutan gauden erabiltzen jakitea eta haietan oinarritzea eskatzen du. Teknika ezberdinen esku hartzea, ohitura ezberdinengana hurbiltzea eta inguruko egoerak ulertzea gutxiengo betebeharrak bezala hartzen da.

Aipatutako helburu guzti hauek ariketa ezberdinak burutuz lor daitezke, eta era honetan haurrekin errazagoa izango da nahi dena lortzea. Arreta mantentzea zaila egiten zaie umeei, beraz, jarduera dinamikoak eta erakargarriak izan beharko dira. Haien interesetatik abiatzea laguntza handia izango da ekintza bat prestatzerako orduan, gustatzen zaiena erabiliz gero aplikatuago egongo direlako. Ahozko hizkuntza lantzeko egunerokotasunean ematen diren egoerak erabil daitezke. Elkarrizketak edota irudiak bezalako baliabideak erabiliz, ikasleek haien hizkuntza garatzeko aukera daukate. Besteengandik jasotako mezuak zein haiek bidali nahi dituztenak ezagutzea eta era egokian transmititzea ezinbestekoa da horretarako. Jardueren bidez, gainera, mezu hori aberastea lor dezakete ikasleek. Hiztegia zabaltzea, adierazteko era gehiago ezagutzea, solaskidearen arabera hizkuntza erabiltzea eta halako teknikak barneratzen joango dira.

### **4.3 Irakaslearen rola**

Irakaslearen edo hezitzailearen rola oso gai zaindua da hezkuntza munduan. Honek iritzi ezberdinak mugitzen ditu jendearen artean, eta historian zehar eraldaketa handia jasan izan du. Irakaslea da ikasgelako bitartekaria, eta bere ikasleen ikaskuntza prozesuan pisuzko aldagaia da. Haren arabera izango da umeen bide akademikoa, horregatik da garrantzitsua bere lan egiteko era egokia izatea. Prestakuntza akademikoaz gain hurren autoestimuan ere eragingo du irakasleak haiek tratatzerako modua bata edo bestea izanda. Hori dela eta, funtsezkoa da oinarrizko ideiak eta norberaren izaera argi edukitzea. Ikasleen autonomia eta lan egiteko gogoia sustatu behar ditu irakasleak, eman daitezkeen arazo ezberdinei konponbideak bilatzeko gai izateko. Argi dago laguntza eman behar zaiela, baina bakoitzaren espazioa errespetatuz. Ekintzak egiterako orduan, adibidez, askoz egokiagoa da hurrek laguntza eskatzea helduak hura eskaintzea baino. Erabakiak hartzeko gaitasunari ere lagunduko zaie modu honetan jokatzuz, bizitzari aurre egiteko ezinbestekoa dena.

Hezitzaile batek jarrera baikorra izan behar du bere ikasleen aurrean, haienganako konfiantza erakutsiz momentu oro. Gainera, pazientziarekin jokatzeko jakin beharko du (Briceño, 2021). Haurrekin denbora konpartitzen den momentutik ezinbestekoa den gaia da pazientziarena, haiei denbora asko eskaini behar zaielako. Bi gauza hauek heldu batengandik jasotzerakoan umeen konfiantzak gora egingo du, berdinen artean dagoela sentituko duelako. Beharrezkoa da ikasleak helduari errespetua

izatea, baina inola ere beldurra. Antolamenduak ere pisua dauka hezitzailearen egitekoetan, lana era jarrai batean egitea ezinbestekoa delako. Umeek jarraipen bat ikusi behar dute landutako gaietan, bestela, arreta mantentzea zailagoa izango zaie. Hau helduengan ere gertatzen da, beraz, hurrekin oraindik argiagoa izan behar da.

Irakatsi edo transmititu nahi dena era antolatuan emateaz gain ahalik eta sinpleen adierazi beharra dago. Era argian lantzea behar-beharrezkoa da hurrekin, kontzeptuak nahastu ez ditzaten. Hau lortzeko, erritmo lasai eta hiztegi sinple batekin hasi beharko da. Taldearen arabera eta ikasleen gaitasunen arabera gero eta maila altuagoak sartzen joan beharko dira, betiere guztien ulermena baieztatuz. Kasu guztietan irakaslea erabat informatua egon behar da, eta landuko den gaiari buruzko ahalik eta gehien jakiten ahalegindu beharko da. Ikasleen galdera guztiei erantzun bat emateko gai izan beharko da, eta zalantza bakarrerako irtenbide bat baino gehiago izatea komeniko litzateke. Dena den, galdera baten erantzuna jakin ezean, askoz hobeto da ezjakintasuna adieraztea informazio okerra ematea baino.

Guzti honetaz gain, hezitzaile baten zeregin nagusietako bat ikasleekin zintzoa eta sentikorra izatea da. Ikasleei errefortzu positiboak emateko gai izatea ezinbestekoa da prozesu osoan haien buruarekiko konfiantza hartzeko. Errefortzu horiei esker ikasten jarraitzeko beharrezkoa den motibazioa handitzen joango dira haurrak. Hori dela eta, helduaren jarrera baikorra izan behar da beti. Argi dago batzuetan errietak bota behar direla, baina ahal den neurrian hauek ekiditea komeni da. Giroa lasaia eta eroso izaten saiatu behar da guztien artean, eta horretarako lehenengo pausua irakasleak eman behar du. Lortutako atmosfera horretan ikasketa egokiak eramango dira aurrera, eta askoz eraginkorragoak izago dira deseroso egonda baino. Hurrek biziko duten prozesu horretan bidelagun eta laguntzaile izango da hezitzailea, baina inola ere diktadore moduko bat.

Material manipulatzaila eskaintzea ere betebeharren barruan dator. Ikasleen interakzioa eta parte-hartzea bultzatzea ikaskuntza prozesuaren alde garrantzitsua da, eta hura lortzeko materiala zaindu behar da. Lehenengo pausua aukera errealak ematea da, gero abstrakziora jo ahal izateko (Briceño, 2021). Honek ikaskuntza esanguratsua izaten laguntzen du, haurren interesa handituz joanez. Materiala zaintzeaz gain saioaren antolakuntza ez da zorrotza izan behar. Gelaren diseinua ikasleen interesen araberakoa izateak asko laguntzen du, eta saioak hurrei moldatuak. Egunaren arabera gai bat edo beste jorratzea gerta daiteke, umeen artean atera den elkarriketa batetik abiatuta. Nik ikusi ahal izan dudana bezala, esaterako, bi ikasleren artean heriotzaren gaia irten zen

egun batean. Hori aprobetxatuz, tutoreak gai horrekiko lanketa bat proposatu zuen, umeen artean arrakasta izan zuena.

Gai horiek atera ondoren baina oraindik lantzen hasi baino lehen garrantzitsua da ikasleen aurreideiak ezagutzea. Aipatutako kasuan, adibidez, bi ume horiei hitz egiten ari zirenaren inguruan galdetu zitzairen. Haien gainontzekoei kontatutakoan, besteak ere haien iritziak adierazten hasi ziren. Elkarrizketa eta ideia elkarbanaketa honek haien pentsatzeko era ezagutzea dakar, gaiari hasiera nola eman erraztuz. Ikasleen ideietatik abiatuta, beraz, elkarrekintza sakonagoak proposa daitezke. Terminologia zehatza erabiltzea, hiztegia zabaltzea eta era egokian adieraztea honekin batera dator. Lan honen gaiarekin lotuz, heriotzaren kontuaren inguruan elkarrizketak izatea interesgarria da. Haien artean zein irakaslearekin egin daitezke elkarrizketa horiek, biak burutuz helburu ezberdinak planteatzeko aukera izanik.

Haien artean arituz elkarlana bezalako helburuak jar daitezke hizkuntza lantzeaz gain. Helduarekin hitz egitean, ordea, gaiari buruz hausnartzeari emango zaio garrantzi handiagoa. Norberaren ideiak planteatzea, besteenak entzutea eta errespetatzea izan daitezke helburuetako batzuk. Honakoa eginez beharbada haur batzuek iritzia alda dezakete, edota hasieran zeuzkaten hipotesietan kontraesanak aurkitu. Hau emanez gero oso seinale ona izango da, kritikotasuna agertzen delako eta hasierako ideiak beti zuzenak ez direla ikus dezaketelako. Hori izango da irakaslearen egitekoa, hots, haren ikasleek gauzak birplanteatzea eta iritzi ezberdinetara irekiak egotea. Horretarako galderak egin ahal zaizkie, erantzun ezberdinak bilatuz. Jasotako erantzun horiek beti izango dira onak, izan ere, pentsaera edo arrazoiketa desberdinak izango dituzte ikasleek. Haien erantzuna arrazoitzeko gai izatea kasu ia guztietan lortuko da, umeei haien logika daukatelako gai ezberdinen inguruan.

Guzti hau egin ondoren norberak heriotzaren (edozein gairekin egin daiteke) aurrean izango duen ikuspuntua hasieran zuenaren ezberdina izango da ziurrenik. Ariketa ezberdinez baliatzea ezinbestekoa da ikasleen interesa ez galtzeko, eta lehen esan bezala, haien elkarrizketa batetik abiatuz gero askoz ere interesgarriagoa eta errazagoa izango da. Honek malgutasuna erakusten du saio bat prestatzerako orduan, irakaslea ideia batekin etorri arren momentuaren arabera aldaketak egin daitezkeelako arazorik gabe. Hori egiten jakitea ere garrantzitsua da hezitzailearengan, bere antolamendua bai edo bai jarraitzeko beharra erakustea ez delako ona. Hori dela eta, plan ezberdinak edukitzea eta moldaketak egiteko irekia izatea goraiatzen dut.

#### 4.4 Ebaluazioa

Hezkuntza munduan egiten den ia edozein prozesutan ebaluazio bat egoten da. Ebaluazio hori ikasleek burutzen dutenaren arabera izango da, hasieratik ezarritako helburu batzuen menpe, noski. Hau beharrezkoa da ikasleen lana eta eboluzioa ezagutzeko eta dena ondo doala ziurtatzeko. Ebaluazioak atzeraelikatze-funtzioa du, emaitzak ikusita jarritako helburuak birplanteatzen direlako, ebaluazioa bera barne (Bejerano, 2011). Informazio zehatza eta sistematikoa lortzea da, egoera bati buruzko datu baliozko eta fidagarriak izateko, horri buruzko balio-judizioa osatu eta emateko. Balorazio horiei esker, erabaki egokiak hartu ahal izango dira ebaluatutako egoera zuzentzeko edo hobetzeko (Casanova, 1998). Haur txikiekin garrantzitsuagoa da hobekuntzen jarraipen bat egitea nagusiagoekin baino, aldaketa handiagoak nabari direlako. Hori dela eta, HH-n arreta jarri behar zaio kurtsoaren hasieran eta hura bukatu arte haurrek lortzen dutena. Hiru ebaluazio mota ezberdin daitezke, sumatiboa, formatiboa eta behaketakoa. Esan daiteke horien barruan hasierako ebaluazioa, ebaluazio jarraitua eta bukaerako ebaluazioa daudela, izan ere, hasierako hiru horiek burutzeko erak dira.

Ebaluazio sumatiboaren kasuan lortutako emaitzak besterik ez dira kontuan hartzen, hasieran ezarritako helburuak bete diren edo ez aztertuz. Ikaslea eskatutako mailara iritsi den edo ez begiratzen da, lortu dituen hobekuntzak kontuan hartu gabe. Amaierako ebaluazioarekin batera doala esan daiteke, haurraren prozesua alde batera uzten delako emaitzei jaramon egiteko. Prozesu osoa pieza bakar bat bezala hartzen da ebaluazio mota hau aplikatzeko, garatutakoari edota eskuratutako trebetasunek ekar ditzaketen ondorioei erreparatu gabe. Gainera ez du ikaslearen inguruko inolako informaziorik eskaintzen, bukaeran lortutako emaitza soilik. Ebaluazio sumatibo hau ebaluazio formatiboarekin elkar daiteke, bata bestearen osagarri bezala jokatzuz. Batak prozesua eta ibilbidea aztertzen dituen bitartean, bestea bukaeran zentratzen da.

Aipatutako ebaluazio formatiboa hobekuntzan oinarritzen dela esan daiteke. Ikasleen, irakasleen, lan egiteko metodoen, baliabideen... hobekuntzetan laguntzea da haren helburu, horretarako hainbat alderdiri begiratzuz. Denbora aurrera joan ahala lortzen doazen trebetasunei erreparatzen zaie, ez bakarrik bukaerako emaitzari. Helburua irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobekuntza etengabe batean egotea dela esan daiteke. Hau erabiliz ikasleak zein eratan ikasten ari diren ikus daiteke, baita ikaskuntza hori zenbatekoa den ere. Prozesuan zehar ikusten denarekin eta ikasleak lortzen ari diren garapenen arabera jarduera batzuk edo beste egin daitezke. Jarduera horiek burutzeko

baliabide eta estrategien esku hartuko da, betiere taldearen beharrei egokitzuz eta haien ikaskuntza prozesuan pentsatuz. Ebaluazio sumatiboaren kontrakoa da hau, hots, emaitzari hainbesteko garrantzia ez ematea eta bakoitzak lortutako hobekuntzari balioa ematea. Dena den, aurrekoan esan bezala, biak batera baliagarriak izan daitezke.

Hirugarren ebaluazio mota behaketakoa da. Ebaluazio-metodo hau ezagutzara zuzendutako borondatezko eta intenzionalitate bat duen ariketa bat dagoenean ematen da. Objektuaren, egoeraren eta ezartzen diren harremanen berehalako bilketa da, izan ere, behatzen dena plasmutzen da. Honek ikasleen berezko jokaeren bat-batekotasuna errazten du, ez baita beste ezer behar datuak biltzeko eta gero haiekin hipotesiak eratu ahal izateko. Fuertesek bere artikuluan dioen bezala, behaketaren helburua hobetzea izan beharko luke, bai irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuko programak baita arlo pertsonalagoa ere (2011). Teknika honen bidez beste ebaluazio metodo batzuekin jaso ezin daitezkeen datuak bildu daitezke, hala nola afektiboak, jokabideak, eta curriculum ezkutua. Behaketak momentuan gertatutakoa plasmatea ahalbidetzen du, eta ez du aurretiko planifikaziorik behar. Hori dela eta, azkar planifika daitezkeen baliabidea da, eta galdu nahi ez den zeozer biltzea onartzen du.

Bestalde, hasierako ebaluazioari dagokionean, azpimarratu beharra dago prozesua hasi aurretik ematen dena dela. Taldearen hipotesiak, ideiak, interesak... zeintzuk diren ezagutzea ezinbestekoa da hortik abiatzeko. Horrela, prestakuntza jarraituko duten subjektuen abiapuntuko egoera detektatzen da, eta, beraz, igarotzen diren uneetarako egokiak diren beste ebaluazio-prozesu batzuk ere. Hori lortzeko haien arteko elkarrizketez eta galdeketez baliatuko da irakaslea, ahalik eta informazio gehien eskuratuz. Jasotako informazio hori haurren beharretara egokituko du hezitzaileak, ebaluatuko dena ere hartara moldatuz. Casanovak defendatzen duen bezala, hasierako ebaluaziorik gabe garapen betean dagoen pertsona baten aurretiazko ezagutza falta da irakaskuntza haren ikaskuntza-baldintzetara egokitu ahal izateko eta, horrela, ebaluazioari esleitu zaion funtzio erregulatzaileria betetzeko (1998).

Bitarteko ebaluazioa, berriz, prozesuan zehar ematen da. Funtzio formatiboak pisua dauka ebaluazio honetan, izan ere, ikasleak haien ikaskuntza prozesuan zehar lortzen doazen gaitasunei erreparatzen zaie. Kasu honetan informazioa jaso ahala erabakiak hartu beharko dira, egoeraren araberakoak izango direnak. Akats edo zailtasun bat agertzeak, era negatiboan ebaluatzeko erabiliko ez dena, noski, ikaskuntza-arazoa detektatzeko balioko du. Horri aurre egiteko jarduera jakin batzuk aplikatu daitezke, edota ikasle horiei azalpen zehatz batzuk eskaini, eta prozesuari jarraipena normal-normal eman. Ebaluazio mota



honekin errazagoa da ikasleek oinarrizko helburuak betetzea, baita ikaskuntza prozesua hobetzea ere, momentuko akatsen bidezko irakaskuntza bultzatzen delako. Akatsez gain, ondo egiten ari direna indartzeko ere balioko du, haien segurtasuna handituz.

Azkenengoa bukaerako ebaluazioa da, zein helburuak zenbateraino eskuratu diren adieraztera datorren. Azken batean, jarduera eta ikaskuntza jakin batzuk egiteko ezarritako epe baten ondoren lortutakoaren inguruan hausnartzeko baliabidea da. Momentura arte ikusitako guztiaren inguruko ondorioztapena bideratzen duten baliabideak erabiltzen dira, horri ebaluazio bat eginez. Honakoa frogak eginez lortzen da, lortutako emaitzak egiaztatuz, baina horrek ez du funtzionaltasun sumatiborik. Ez da beharrezkoa azterketak egitea bukaerako ebaluazioa egiteko, izan ere, irakasleak ikaslearekiko informazio eta datu nahiko baditu, hala egin dezake. Dena den, nire ustez ebaluazio egokiena bitartekoa eta formatiboa da, ikasleen prozesu osoari jaramon egiten diona, ez soilik emaitzari. Hori dela eta, jarraian datozen jarduerak horren arabera ebaluatzea gomendatzen dut. Ikasle bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuko dira, taula (2. eranskina) edo jarraipen eskema bat eskura izatea lagungarria izanik, haur bakoitzaren prozesua aztertzeko.

#### **4.5 Jarduerak (4. eranskina)**

Bost urteko talde batean zentratuko naiz jarduerak proposatzerako orduan, aurtengo praktikaldia adin horretako ikasgela batean burutu dudalako. Egonaldi horretan zehar hainbat ekintza egin eta ikusi ahal izan ditut, non helburu ezberdinetako alderdiak landu izan diren. Gai ezberdinetarako jarduerak izan diren arren, jarraian agertzen direnak hizkuntzarekin eta komunikazioarekin zerikusia daukatenak dira. Helburuen artean, argi dagoen bezala, gai horiekiko lotuta daudenak daude gehienbat. Dena den, saihetsezina da bestelako helburu batzuk ere harekin ekartzea. Hau esanda, jarduera desberdinen esku har daiteke hemendik aurrera.

##### **1. Jarduera**

<b>ANTZERKIA</b>
<b>Iraupena:</b> 30 minutuko saioak
<b>Baliabideak:</b> Mozorroak, oihalak, argazkiak, musika, ikasgelak...
<b>Helburuak:</b>

- Ikasleen parte hartzea eta komunikatzeko gaitasuna bultzatzea.
- Ahozko hizkuntza lantzea.
- Haurren adierazteko era erraztea.
- Jendaurrean hitz egiteko erosotasuna bultzatzea.
- Interpretazioarekiko hurbiltasuna lortzea.
- Taldean lan egiten ikastea.

**Deskribapena:** Egunerokotasunean aurki daitezkeen egoerak interpretatzea da ideia. Haurrek haien familiekin bizi dituzten errealitateak ikasgelara ekartzeak erosotasuna eragingo die. Erosketak egitera goazenean dendariarekin mantentzen dugun elkarrizketan oinarritu gaitzke, edota igogailuan bizilagunarekin hitz egiten dugunean. Haurrek ezagutzen duten kasuak dira, beraz, interesa handituko da. Gainera, helduek egiten dituzten gauzak izanda oraindik erakargarriagoa egingo zaie.

Ikasleei egin beharrekoa azaldu ondoren guztien artean aukeratuko da interpretatuko den egoera edo erabiliko den gaia. Hautatzen den gaiaren arabera aukeratuko da materiala, umeen familiei hura lortzeko laguntza eskatuz. Lehenengo saioan taldeak eratu dira, eta hautatutakoaren inguruan jardungo dute haurrek haien artean. Ez da komeni ordu laurden baino gehiago eskaintzea, izan ere, denbora luze egotekotan beste gauza batzuei buruz hitz egiten hasiko dira. Behin taldeak eginda eta haien artean egingo dena erabakita pertsonaiak banatzen hasiko gara helduaren laguntzaz.

Bigarren saioan entseguak egin daitezke, talde bakoitzak bere antzerkia prestatzeko. Ahal izanez gero espazio bat baino gehiago erabiliko da, ikasleek gainontzekoen antzerkiak ikus ez ditzaten. Behar diren entseguak egingo dira, haurren arabera. Hurrengo saioan talde batek prestatutakoa antzeztuko du, bukaeran ikaskideen kritikak edota zorionak jasoz. Haurren jarreraren arabera beste talde batek aurkeztu ahal izango du, edo hurrengorako utzi.

Talde guztiek haien antzerkiak egin arte luzatuko da jarduera hau, guztiek izateko interpretatzeko aukera. Bai antzeztuz baita gero komentarioak eginez ere hizkuntza lantzen arituko dira, hezitzailearen laguntza izanez gero eskatuz. Normala da antzerkia prestatzerako orduan zalantzak agertzea, baina horretarako egongo da heldua.

## 2. Jarduera (3. eranskina)

<b>PERTSONAIK SORTZEN</b>
<b>Iraupena:</b> 30 minutuko 3 saio
<b>Baliabideak:</b> Kartulinak, margoak, arkatzak, rotulkiak, folioak, audioa grabatzeko gailu bat, ikasgelak
<b>Helburuak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Euskararekiko hurbiltasuna lortzea.</li><li>- Ahozko hizkuntza lantzea.</li><li>- Adierazkortasuna garatzea.</li><li>- Grabazioak ezagutzea.</li><li>- Irudimena zabaltzea.</li><li>- Motrizitate fina lantzea.</li></ul>
<p><b>Deskribapena:</b> Lehenengo saioan taldeka banatu eta pertsonaia bat egokituko zaio bakoitzari. Talde bakoitzak bere pertsonaiari buruzko informazioa asmatu beharko du, emango zaien kartulinetan plasmatur. Partaide guztien artean erabaki beharko dute pertsonaiaren bizitza, adibidez, zer jaten duen edo non bizi den. Marrazkia ere guztien artean egin beharko dute, taldelana errespetatuz eta inor besteen gainetik egon gabe. Taldeek sekretua mantendu beharko dute, gainontzekoei haien lanari buruzko informaziorik eman gabe eta pertsonaiaren identitatea ezkutatzuz.</p> <p>Bigarren saioan ahots grabaketak egingo dira. Teknologia berrien erabilera txiki bat aurkeztuko da hemen, haien interesa handituz. Bakoitza lehenengo saioan egindako marrazkiaren aurrean kokatu beharko da, besteez ezagutu gabe. Banan-banan taldeak beste espazio batera eramango dira grabazioak egiteko, sekretuak jarraitu dezan. Aparteko gela horretan haur bakoitzak marrazkian plasmaturako zeozer azaldu beharko du. Adibidez, haien pertsonaiak igeri egitea maite badu, hura azaldu beharko du ume batek.</p> <p>Hirugarren saioan guztiok elkartuko dira, marrazkiak arbelean itsatsiz. Bakoitzak bere marrazkia bakarrik ezagutuko du, eta besteak ikusten dituzten lehenengo aldia izango da. Marrazkiak ikusgai jarrita, audioak jartzeari ekingo zaio. Ikasleek audio bakoitza marrazki batekin lotu beharko dute, bat datozen edo ez jakin gabe. Behin guztiak lotuta, marrazkien egileek lotura hori baieztatu edo ezeztatuko dute.</p>

Laugarren saio bat egin daiteke, edota, segun eta hirugarrenak zenbat denbora daraman, hor bertan egin. Guztien artean marrazki guztiak konbinatu daitezke, pertsonaien arteko erlazioa sortuz. Horien bizitzak era batera edo bestera harremandu daitezke, haurren irudimenaren arabera. Familiakoak, lagunak, ezezagunak... izan daitezke haien artean. Haurrek guztien artean erabaki beharko dute informazioa istorio bat burutzeko, edo behintzat pertsonaien arteko harremana azaltzeko.

### 3. Jarduera

OPORRETAKO LIBURUA
<b>Iraupena:</b> 20 minutu astean behin
<b>Baliabideak:</b> Liburua eta haurrak egindakoa
<b>Helburuak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Jendaurrean hitz egiteko erraztasuna garatzea.</li><li>- Ikaskideen bizitzari buruzko gehiago ezagutzea.</li><li>- Haurren adierazteko era erraztea.</li><li>- Toki ezberdinak ezagutzea.</li><li>- Denbora librean egiten dutena ekartzea.</li></ul>
<p><b>Deskribapena:</b> Seguruena haur bakoitza toki batera edo bat baino gehiagora joango zen udako oporretan. Hori erabilia, bertan egindako argazkiak ikasgelara ekarri eta guztion artean liburu edo album bat osatzea da ideia. Lehenengo saioan argazkiak bildu eta bakoitzak egokitutako espazioan itsatsiko ditu bereak. Nahi izanez gero zerbait idatzi dezakete, adibidez argazkian norekin dauden edo nongoa den.</p> <p>Lan hori bukatu ondoren eta beharrezko saioak hartu ondoren jarduerari ekingo zaio. Astean behin izango da ekintza aurrera eramateko unea, egun zehatz bat ezartzea gomendatuz, esaterako, astearteetan patioa ondoren. Hauetako saio bakoitzean haur bat izango da gidaria, berak liburuan egindakoa azalduz. Nahi duena konta dezake argazki horien inguruan, baita informazio edo esperientzia gehiago gehitu ere. Besteek ikaskideak esandakoa entzun beharko dute, eta gehien gustatzen zaionarekin geratu.</p>

Kontakizuneko momentu bat aukeratu beharko dute bukaeran komentatzeko.

Aurkezten ari den ikasleak bukatutakoan, bakoitzak aukeratu duen pasartea aipatuko du, hautaketaren zergatiak emanez. Nahi duenak parte hartu ondoren, bozketa bat egingo da. Talde osoaren artean hurrengo saioan gidaria nor izango den aukeratu da. Horretarako banan-banan joango dira bata bestea bozkatzen, guztiek eman arte. Bukaeran boto gehien dituenak hurrengo asterako bere atala prestatu beharko du, bai etxekoen bai irakaslearen laguntzaz. Aste bakoitzean prozesu bera errepikatuko da, baina gidaria eta istorioa aldatuz, noski.

#### 4. Jarduera

##### LIBURU BIDAIARIA

**Iraupena:** 30 minutu astean behin

**Baliabideak:** Liburua eta haurrak ekarritakoa

**Helburuak:**

- Jendaurrean hitz egiteko erraztasuna garatzea.
- Ikaskideen interesak ezagutzea.
- Kritikotasuna lantzea.
- Familien parte-hartzea sustatzea.

**Deskribapena:** Jarduera hau Oporretako Liburuaren antzekoa dela esan daiteke. Oraingoan ere liburu bat da oinarria, hurrek egindakoa, noski. Hau, ordea, etxean egingo dute. Bakoitzak ostiral batean eramango du etxera, asteburua lan egiteko aprobeztatu ahal izateko. Ideia ikasle bakoitzak gustoko duen zeozer marraztea edo idaztea da, nahi dituen baliabideak erabiliz. Errezeta bat, ipuin bat, parke bat... sar ditzake umeak dagozkion orrialdeetan, eta hari buruzko azalpenak prestatu.

Ikasgelara familiako norbait joango da umearekin azalpenak ematera, eta nahi izatekotan material edo euskarri fisikoak ere ekar ditzakete. Ikaslea izango da gainontzekoei informazioa ematen diena, baina helduak laguntzaile bezala egin ahal izango dio. Beharbada galderak egin ditzazkioke azalpena errazago emateko, edo haurrak hitz egin bitartean familiako kideak eramandakoa erakutsi dezake. Familiako

norbait ikasgelan izateak konfiantza transmititzen dio haurrari, eta ikaskideen aurrean harro egotea lortzen du. Jarduera hau ere astean behin egiteko dago pentsatua, baina taldearen interesaren arabera maizago egin daiteke.

## 5. Jarduera

HITZ KATEA
<b>Iraupena:</b> 15 minutu
<b>Baliabideak:</b> Liburua eta haurrak egindakoa
<b>Helburuak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Memoria lantzea.</li><li>- Arreta garatzea.</li><li>- Esaldi koherenteak eraikitzen jakitea.</li><li>- Bat-batekotasunarekin lan egiten jakitea.</li></ul>
<p><b>Deskribapena:</b> Denok borobilean eseri eta hezitzaileak hitz bat esango dio haur bati altuan. Ume horrek ahalik eta denbora gutxien erabiliz esaldi bat eraiki behar izango du, esandako hitza erdigune izanik. Adibidez, “baloia” baldin bada irakasleak esandako hitza, umearen esaldia halako zeozer izan daiteke: atzo parkean baloiarekin jolasten ibili nintzen.</p> <p>Esaldia botatzerakoan, hurrengo umeak gauza bera egin beharko du. Oraingoan, ordea, lehenengo haurrak aipatutako beste hitz bat aukeratu beharko du erdigune izateko. Aurreko adibidearekin jarraituz, bigarren ikasleak “parkea” hitza har dezake abiapuntu bezala. Horrela, bada, esaldi berri bat eraiki beharko du “parkea” hitzari garrantzia emanaz. “Nire etxe ondoko parkeak txirrista bat dauka” izan daiteke bigarren ume horren esaldia. Hirugarren partaideak, beraz, esaldi horretako beste hitz bat aukeratu beharko du bere atala egiteko.</p> <p>Idea kate baten moduan jardutea da, hasierako hitzetik erabat ezberdinak diren esaldiak eratuz. Interesgarria da loturak nola egiten dituzten ikustea, izan ere, batek bide batetik eramango lukeen hitz bat beste batek kontrako zentzuan eramaten du. Oso ariketa ona da esaldi osoak ikusten joateko eta haien etxeko hizkuntza ez den hizkuntza batenganako lanketa egiteko. Esaldiak sinpleagoak edo konplexuagoak izan</p>

daitezke, haurren eta adinaren arabera beti.

## 6. Jarduera

KOLOREAK
<b>Iraupena:</b> 10-20 minutu
<b>Baliabideak:</b> Ikasgela
<b>Helburuak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Koloreen eta objektuen arteko erlazioa sortzea.</li><li>- Tresna ezberdinen erabilera ezagutzea.</li><li>- Ikasgelako objektuei erreparatzea.</li><li>- Hiztegia zabaltzea.</li><li>- Zehaztasunak ematen jakitea.</li></ul>
<p><b>Deskribapena:</b> Koloreak oinarri gisa erabiliz ikasgelari erreparatuko zaio. Guztien artean kolore bat aukeratuko da, jarraian gelatik buelta bat emanaz. Pertsona batek espazio horretan ikusitako objektu edo tresna bat aukeratuko du, paper batean idatziz. Dena den, ikasgela batean material asko dagoenez, hasieran erabakitako koloreaz baliatuko dira. Aukeratutako objektua kolore horretakoa izan beharko da. Horrek aukera zabal hori txikituko du, baina hala eta guztiz ere ez da lan erraza.</p> <p>Aukeraketa hori ez du beste inork ezagutuko, hura asmatzea baita helburua. Objektua zein den asmatzeko galderak egingo zaizkio umeari, baina soilik bai edo ez erantzun ahal izango du. Esaterako, idazteko balio duen, handia den, gogorra den... bezalako galderak egin ahal dizkiote. Galdera horiekin haur guztiek landuko dute ahozketasuna, eta galderak jasotzen ari dena erlazioak egiten saiatu beharko da. Esaten diotenaren eta bere objektuaren arteko harremana bilatu beharko du, buruan hizkuntza erabiliz eta hura estimulatuz.</p>

## 5. Ondorioak

Lan honen helburu nagusia Haur Hezkuntzako ikasleek hizkuntzarekiko eta ahozkotasanarekiko hurbilketa bat egitea da. Horretarako informazioa bildu eta eskaini da, niri ere gaiari buruzko hausnarketak eraginez. Hizkuntzaren eta komunikazioaren garrantzia argia da, baina lan hau burutu ondoren nik pentsatu baino ezinbestekoagoa dela ohartu naiz. Eguneroko bizitzan edonork daukan gaitasuna dela esango nuke, konturatu gabe ere transmititzen dena. Keinu txikienarekin zerbait esateko gai gara gizakiok, eta hori here hizkuntza da. Beraz, hitzezko zein hitzik gabeko hizkuntza ezinbestekoa da gure bizitzan, eta hartaz baliatzen gara edozer gauza egiteko. Bildutako informazio guztia oso erabilgarria iruditzen zait gaiari buruz gehiago jakin nahi duen norbaitentzat, eta espero dut laguntzazkoa izatea.

Hizkuntzaren historia eta komunikazioaren hasierari buruz hitz egin da, hainbat autoreri erreferentzia eginez. Ibilbide hori ezagutzeak urteekin aldatu denaz ohartarazi nau, eraldaketa handia izanik. Hizkuntzak jasan duen garapena handia da, eta horri esker bizi gara gaur egun errealitate honetan. Hizkuntza motak ere aipatu dira, guztiak hitzezkoak izan gabe. Beharbada "hizkuntza" hitza entzuterakoan guztioi etortzen zaigu burura kontzeptu bera. Ingelesa, Frantsesa eta Gaztelania bezalakoak bururatzen zaizkigu, hizkuntzak direnak, noski, baina hitzik gabekoak ez dira ia inoiz agertzen adibide bezala. Horregatik garrantzitsua iruditzen zait hurrekin hori txikitatik lantzea eta haien ideiak zabaltzea. Etorkizun batean norbaiti hizkuntzen inguruan galdetzerakoan, hitzezkoaz gain beste batzuk ere badaudela ezagutzea beharrezkoa iruditzen zait. Horretarako, baina, gutxieneko lanbete bat egin behar da, gainontzeko hizkuntza motak ezagutzera iristeko.

Haur Hezkuntzako ikasgela batean zentratuz, hizkuntzak badu bere garrantzia. Inguru honetan ere momentu oro daude haurrak komunikatzen eta hizkuntza erabiltzen, nahiz eta hitzik ez esan. Umeek bizitzen eta gaintitzen dituzten etapak ezagutu ditugu, adinarekin batera gora doazenak. Horietako bakoitzean ematen diren ezaugarriak kontuan hartu beharreko arloa dira irakaslearen roletik begiratuta, izan ere, lanbete horren zati handia hartzen dute. Hemen ere beste egile batzuen artikuluez baliatu naiz ideia ezberdinak jasotzeko, eta erabat interesgarria ikusi dut iritzi ezberdinak alderatzea. Haien ideiak ezagututa errazagoa da norberak hartu nahi duen papera aukeratzea eta ikasleen aurrean jokatzeke era definitzea. Horrela bakoitzak bere izaeraren zati bat hara zuzenduko du, irakasle rolera, eta bere parte izango da momentu horretatik aurrera.



Ezinbestekoa iruditzen zait identitatea definitzea, nahiz eta bizitza pertsonaletik asko aldendu. Irakasle edo hezitzaile bezala argi izan behar dira jarraitu nahi diren ideiak, eta ideia horiek oinarri hartuta era batera edo bestera jardun daiteke. Esan bezala, hezitzaile moduan hartutako identitatea ez da bizitza pertsonalean hartzen dena izan behar derrigorrez. Agian hurrekin egoterakoan era batean jardutea ateratzen zaio irakasleari, egunerokotasunean beste era batean izanda, baina hori ez da txarra. Ikasle taldearekin nolakoa izatea argi edukitzekotan, nahikoa da laneko izaera definitzeko. Irakaslearen rola hartzen denetik eta jokabide horren barruan haurra izan behar da erdigune, bere beharrak lehenetsiz. Hori abiapuntu izanik, ikasleek ikaskuntza prozesuan barneratu beharreko aldagaiak lortzen dituztela ziurtatu behar da. Horretarako haien konfiantza eta motibazioa eskuratu beharko ditu, aurretiazko lanketa bat eginez.

Esandakoa kontuan hartuz jarduerak ere proposatu dira, zeintzuk praktikan jarri diren. Hori dela eta, haien funtzioa betetzen dutela ziurta daiteke. Haurren komunikatzeko gaitasuna goraipatu da, hartarako hizkuntza erabilia. Horregatik, proposatutako jardueren helburu gehienak bide horretatik doazela esan daiteke. Ikasleak ahozko hizkuntzara hurbiltzea bilatuko da era ludiko eta erakargarri batean. Garrantzitsua da planteatutakoa erakargarria izatea umeei arreta mantentzeko, eta nire ustez egokiak dira kasu hauetarako. Gainera, haien gustokoak diren gauzetatik abiatutako ekintzak direnez, errazagoa izango zaie nahi dutena adieraztea. Era honetan ikaskuntza esanguratsua lortzeko aukera handiagoa dago, betiere taldea eta giroa errespetatuz.

Argi dago talde bakoitzaren araberkoa izango dela ekintzen laguntza, baina norberaren interesez baliatuz gero, normalena helburuak betetzea da. Ekintza hauek irakasleei begira daude pentsatuta, baina etxean burutzeko ere erabilgarriak izan daitezke. Moldaketak egiteko aukera dago, haurren edo haur kopuruaren arabekoak izango direnak batez ere. Etxean egitekotan, esaterako, talde txikiagoan burutuko dira, beraz, egoerari egokitu beharko zaizkio. Ahozkotasanari eta hizkuntzari buruzko jarduerak pentsatzerako orduan lan honi begiratzea baliabide bat izan daiteke, errealitatean ikusitako ekintzak direlako eta haien funtzionaltasuna frogatuta dagoelako. Beraz, laguntzazkoak izatea espero dut.

Laburbilduz, esan dezaket lan hau burutzen oso eroso sentitu naizela eta gauza berri asko ikasi ditudala. Ahozkotasuna eta hizkuntza Haur Hezkuntzako urteetatik hasi beharreko lanketa dela ziurta dezaket orain, bizitza osoan zehar gurekin egongo diren

alderdiak direlako batez ere. Umeen autonomia gaitasunari laguntzen diote, eta haien egunerokotasunean eman daitezkeen egoera ezberdinei aurre egiteko baliabideak dira. Horregatik da ezinbestekoa txikitatik estimulatzea, bai eskolan baita etxean ere, haiek barneratzeko eta garatzeko lanketa bultzatuz. Ez dugu ahaztu behar, ordea, gai hauetako profesional adituak ere badaudela, eta haien esku har daitekeela zailtasun larriak agertzeko kasuetan.

## 6. Erreferentziak

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztutakoa eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 15a, 9. zk, 1-47.or. <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2015/12/22/237/dof/spa/html/webleg-00-contfich/es/>

Acosta, V. M., Ramos V., Quintana, A. eta Espino, O. (1996). *La evaluación el lenguaje. Teoría y práctica del proceso de evaluación en la conducta lingüística infantil*. Málaga: Aljibe.

Álvarez González, C. J. (2010). *La relación entre lenguaje y pensamiento de Vigotsky en el desarrollo de la psicolingüística moderna*. RLA. Revista de lingüística teórica y aplicada, 48(2), 13-32. <http://dx.doi.org/10.4067/S0718-48832010000200002>

Bachman, L. (1995). *Habilidad lingüística comunicativa. Competencia comunicativa*. Documentos básicos en la enseñanza de lenguas extranjeras, 105-127.

Bejerano, F. (2011). *La evaluación en educación infantil*. Cuadernos de Educación y Desarrollo, 3. Bol., 29. zk.

Bigas Salvador, M. (1996). *La importancia del lenguaje oral en educación infantil*. Revista Aula de Innovación Educativa, (46), 0005-8.

Bizkaiako foru aldundia (2020). *Ahozko hizkuntzaren garapena. Familiaren garrantzia*. <https://www.bizkaia.eus/documents/880285/2238907/Hizkuntzaren+garapena+%281%29.pdf/5867a9b8-2bed-c43a-1b25-e5e4828e8ce9?t=1585725364347>

Briceño, G. (2021). *El rol del docente en la enseñanza: la importancia de un educador eficiente*. Gizarte eta Komunitate Zerbitzuak. <https://www.aucal.edu/blog/servicios-sociales-comunidad/el-rol-del-docente-en-la-ensenanza-la-importancia-de-un-educador-eficiente/>

Calderón Coronado, R. (2016). *La importancia del lenguaje y el aprendizaje en el desarrollo del niño*. Educación, (22), 54–58. <https://doi.org/10.33539/educacion.2016.n22.1147>

Cárdenas Páez, A. (2011). *Piaget: lenguaje, conocimiento y educación*. Revista colombiana de educación, (60), 71-91.

Casanova, M. A. (1998). *Evaluación: Concepto, tipología y objetivos. La evaluación educativa*. Escuela básica, 1, 67-102.

Chica, M. F., eta Prado, A. L. R. (2012). *La construcción social de la infancia y el reconocimiento de sus competencias*. Itinerario educativo, 26(60), 75-96.

Chomsky, N. eta Foucault, M. (2015). *Chomsky-Foucault eztabaida: giza izaerari buruz*. Prentsa Berria.

Contributors to Wikimedia projects (2022). *Hizkuntza*. Wikipedia, entziklopedia askea. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Hizkuntza>

Coordinación de Educación a Distancia (2023). *Técnicas e instrumentos de evaluación. Guía de apoyo para el docente*. [https://uabcs.mx/cead/files/Gu%C3%ADa\\_de\\_t%C3%A9cnicas\\_e\\_intrumentos\\_de\\_evaluaci%C3%B3n.pdf](https://uabcs.mx/cead/files/Gu%C3%ADa_de_t%C3%A9cnicas_e_intrumentos_de_evaluaci%C3%B3n.pdf)

Costa, J. (2011). *Los tres fundamentos del lenguaje gráfico*. Diseño. Revista Científico-Académica Internacional de Innovación, Investigación y Desarrollo en Diseño, 4, 19-30.

Crystal, D., Bernárdez, E., eta de Bustillo, F. M. (2005). *La revolución del lenguaje*. Madrid: Alianza.

Diferenciador. (2021). *Tipos de lenguaje (con sus características y ejemplos)*. Diferenciador. <https://www.diferenciador.com/tipos-de-lenguaje/#:~:text=El%20lenguaje%20es%20un%20sistema>

Eusko Jaurlaritz, Mugimendu Autonomoa (2023). *HH oinarri- Urteko Programazioa egiteko gida*. <https://www.hhoinarri.net/dokumentuak/urteko-programazioa-egiteko-gida>

Fuertes Camacho, M. T. (2011). *La observación de las prácticas educativas como elemento de evaluación y de mejora de la calidad en la formación inicial y continua del profesorado*. Revista de docencia universitaria. [https://repositori.es/FuertesCamachoMT\\_Observacionpracticas\\_2011.pdf?sequence](https://repositori.es/FuertesCamachoMT_Observacionpracticas_2011.pdf?sequence)

Gallego, O. eta Fernández de Haro (2003). *Enciclopedia de la Educación Infantil*. Málaga: Aljibe.

Garrido, M. P. (2015). *La teoría constructivista de Piaget*. Red Social Educativa.

Gutierrez, J. eta Ezeizabarrena, M. J. (2022). *Hotsetik hitzera: nola bereganatzen dute hizkuntza haur euskaldunek?*. Erein.

Karmiloff, K., eta Karmiloff-Smith, A. (2005). *Hacia el lenguaje: del feto al adolescente* (28. bol). Ediciones Morata.

Larrosa, J. (2001). *Lenguaje y educación*. Revista Brasileira de Educação, (16), 68-80.

Navarro Pablo, M. (2003). *Adquisición del lenguaje. El principio de la comunicación*. CAUCE, Revista de Filología y su Didáctica, 26.zk, 321-347. or. Universidad de Sevilla.

Oliveros, L. C. (2000). *La revolución en lingüística: Ferdinand de Saussure*. Santiagoko Unibertsitatea.

Pajares, A. (2021). *Gaitasun soziolinguistikoa*. Mind Map, Mindomo. <https://www.mindomo.com/es/mindmap/gaitasun-soziolinguistikoa>

Palacios, Marchesi eta Cols (2002). *Desarrollo psicológico y educación*, I. eta III. Bol. Madril: Alianza Editorial.

Reguero Ugarte, U. (2020). *Hizkuntzaren jabekuntza* [PowerPointeko Diapositibak]. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, EHU. [https://docs.google.com/presentation/d/1AL1-1w3bnzwwp6iic9vW\\_9keV1yOJADn/edit?usp=share\\_link&oid=118120719172448959447&rtpof=true&sd=true](https://docs.google.com/presentation/d/1AL1-1w3bnzwwp6iic9vW_9keV1yOJADn/edit?usp=share_link&oid=118120719172448959447&rtpof=true&sd=true)

Rondal (1993). *El desarrollo del lenguaje*. Bartzelona: Ed. Médica y Técnica.

Santurtziko Udal Euskaltegia (2023). *Gaia 1- Ohar batzuk ebaluazioaz*. <https://ikasgela.santurtzieus.com/mod/book/view.php?id=16915>

Serrano, A. M. (1988). *Estimulación del lenguaje en el niño pequeño. Bases teóricas para el apoyo del lenguaje en el hogar y en la escuela*. Revista padres y maestros. <https://revistas.comillas.edu/index.php/padresymaestros/article/view/7610/7430>

Skinner, B. F., eta Ardilla, R. (1975). *Sobre el conductismo* (158-159). Fontanella. <https://clea.edu.mx/biblioteca/files/original/0d6969167df7b4fd8174eacff10fa0df.pdf>

Werstch, J. eta Vigotsky (1988). *La formación social de la mente*. Bartzelona: Paidós.

Williams, R. L. (1992). *Historia de la comunicación* (2. Bol, 181-209 or.). Bosch.

Yule, G. (2007). *El lenguaje*. Akal Edizioak.

## 7. Eranskinak

### 1. Eranskina- 237/2015 DEKRETUA

[HH oinarri - 237/2015 Dekretua](#)

### 2. Eranskina- EBALUAZIO TAULA

EDUKIAK	BAI	ZERBAIT	EZ	OHARRAK
Interesa erakutsi du				
Adi egon da				
Gogotsu parte hartu du				
Komunikazio-estrategiak erabili ditu				
Gai izan da egindako lana aurkezteko				
Bere sentimenduak adierazi ditu				
Gustora aritu da talde lanean				
Poliki-poliki hiztegia menperatzen doa				
Lasai egon da				
Materiala zaindu du				
Jakinmina piztu zaio				
Hausnartzeko pentsaera erakutsi du				
Eztabaidatzeko prest ageri da				
Interesak edukiarekin lotu ditu				
Jarduera hobetzeko prest dago				
Kritikak onartu ditu				
Klasekideei laguntzeko prest agertu da				
Zalantzak adierazi ditu				
Galderei erantzuteko gai da				
Informazioa barneratu du				
Adierazpenak ematean landutako hiztegia erabili du				
Aurrezagutzen eta azken emaitzaren artean loturak egiteko gai da				

---

**Ikaslearen izen-abizenak:**

**Ebaluatutako irakaslearen izen-abizenak:**

**Ikasgela:**

**Ebaluatze-data:**

---

### 3. Eranskina- PRAKTIKETAKO ESKU-HARTZEA

Practicum III-an praktikan jarri beharreko esku-hartzea taldearen arabera izan behar zela argi nuen lehenengo momentutik. Beraz, hasierako asteetan ikasgelan sortutako arazo nagusia hizkuntzarena zela ikusita, tutorearekin hitz egin nuen. Honek arrazoiak eman zidan, izan ere, euskararekiko harremana minimoa da haurrengan. Hori dela eta, euskara era dinamikoan nola landu pentsatzen hasi nintzen. Umeei marraztea asko gustatzen zaiela ikusi nuenez, hortik abiatzea erabaki nuen. Hala, marrazkia eta hizkuntza erlazionatzeko jarduera bat bururatu zitzaidan, tutorearekin partekatu nuena. Unibertsitateko tutoreak zein Urkidekoak baiezkotzea eman ondoren, egin nahi nuena sakonago prestatzen hasi nintzen.

Esku-hartzea hiru saiotan burutzea erabaki genuen, behar zuen denbora eskaintzeko eta hurrek ere horrek zeukan garrantzia ikusteko. Ikasleen lehenengo egin beharrekoa txokoka jartzea (haur-taldeak aldatuz joaten zirenean, baina momentu horretan egokituta zeuden taldeekin egin genuen) eta nik erakutsitako pertsonaia baten bizitza asmatzea izan zen. Sekretua mantentzeko arau horrek haien arteko jolas bat eragin zuen, misterioz bete. Esku-hartzearen kontuarekin hasi nintzenetik bakoitzak bere pertsonaia ezkutatzeko edozer gauza egin zuen, eta horrek asko poztu ninduen. Honek haien adierazteko gaitasuna eta irudimena lantzeko balio izan zien, baita euskaraz komunikatzeko ere. Ni taldez-talde mugitzen joan nintzen, behar izanez gero jarraibideak emanez edota ideiak botaz. Gaztelaniaz hitz egitera jotzen zuten zuten, helduon egiteko nagusia horretan laguntzea izan zen, eta euskaraz egitera animatzea batez ere. Pertsonaiaren bizitzaz hitz egin ondoren, pentsatutako guztia marrazteari



ekin zioten. Saio hau burutzeko ez nuen ordutegi finkorik izan, beraz, lasaitasunez hartu ahal izan genuen.

Nire hasierako ideia marrazki bakarra egitea zen, guztiak harremana izanda. Talde batzuek, ordea, marrazki txiki asko egin zituzten. Hura ikusita ariketa egiteko beste aukera bat zela ohartu nintzen, momentura arte bururatu ez zitzaidana. Beraz, ez nien gaizki zegoela esan, guztiz kontrakoa, ideia gustatu zitzaidala transmititu nahi izan nien. Talde batek, adibidez, egokitutako pertsonaiari jatea gustatzen zitzaiena alde batean marraztu zuen, haren bizilekua beste alde batean, ohiturak bestean... Haien azalpenak logika osoa zuen, hots, gai ezberdinak ondo bereiztu ahal izatea besteekin nahastu gabe (janaria janariarekin, ohiturak ohiturekin...). Beste talde batek nire hasierako ideiarekin bat egin zuen. Marrazki orokor bat egin zuten guztien artean, pertsonaia deskribatzen zuten gauzak zegozkien tokian kokatuz. Mendiak egin zituzten, eta tontorrean haren etxea. Horrek esan nahi zuen mendian ibiltzea gustatzen zitzaiola, baita han goian bizi zela ere.

Bigarren saioan ahots grabazioak egitea proposatu nien. Haurrak emozionatu egin ziren, teknologia maite dutelako, eta beraz lehenengo momentutik prest egon ziren. Berriro ere taldeka jartzeko eskatu nien, bakoitza bere marrazkiaren aurrean egon zedin. Banan-banan taldeak beste ikasgela batera eraman nituen grabazioak egiteko, bestela gainontzekoek entzungo zituztelako. Sekretua mantentzearen kontuak interes maila igo zuen, batak bestearen pertsonaia ezagutu nahi zuelako, baina inork ez zuen ezer esaten. Aparteko gela horretan haur bakoitzak marrazkian plasmatutako zeozer azaldu behar izan zuen. Adibidez, haien pertsonaiari sagarrak jatea gustatzen zitzaiola erabaki bazuten, hura adierazi behar zuten grabazioan. Atal hau ez zen oso ondo atera, aurretik esan bezala euskarazko adierazpena ez daukatelako barneratuta. Dena den, erabiltzearen poderioz emaitza txukuna lortu genuen.

Hirugarren eta azkenengo saioan guztiok elkartu ginen, marrazkiak arbelean itsatsiz. Bakoitzak bere marrazkia bakarrik ezagutzen zuen, eta besteak ikusten zituzten lehenengo aldia zen. Barreak nagusitu ziren konbinazio arraroen aurrean, baina betiere errespetua faltatu gabe. Marrazkiak ikusgai jarrita, audioak jartzeari ekin nion. Adi-adi egon ziren haien ikaskideen azalpen guztiak entzuteko, eta arazorik gabe asmatu zuten zein marrazkiren inguruan hitz egiten zen kasu bakoitzean. Denboraz bukatu genuenez, guztion artean lau marrazkiak konbinatu eta pertsonaien arteko erlazio bat sortu genuen. Euskara erabiltzen saiatu ziren, nahiz eta batzuetan zalantzak izan. Nire helburu nagusia hizkuntza lantzea zenez, emaitzarekin gustora

geratu nintzen. Hasierako saioan eta bukaerakoan saiatu zirena alderatuz alde handia nabaritu nuen, eta oraindik lantzeko asko falta zaien arren, intentzioa hor dago.

#### 4. Eranskina- JARDUERAK

<https://www.educapeques.com/estimulapeques/desarrollo-lenguaje-oral.html>

<https://www.orientacionriojabaja.info/estimulacion-lenguaje-oral/>

<https://www.imageneseducativas.com/trabajamos-la-estimulacion-del-lenguaje-con-onomatopeyas-en-imagenes/>

<https://www.guiainfantil.com/educacion/juegos/la-importancia-de-los-juegos-de-imitacion-en-los-ninos/>